

Karmele Erraztiren testuak: corpus osatua eta azalpen laburra¹

Karmele Errazti's texts: An extended corpus and a short explanation

Enara San Juan Manso

Ikertzaile independentea

ABSTRACT: Karmele Errazti is one of the Basque nationalist women who participated in public and political life during the first half of the 20th century. As well as being the first president of Emakume Abertzale-Batza, Errazti was also one of the women who wrote in the nationalist press at the time. She mainly published articles as well as a few short stories for children and a play, the latter together with her husband Keperin Jemein; she also exchanged private letters with relatives and acquaintances. In this article, I try to extend the corpus of Errazti's texts, taking into account both her published and private texts; in this way, I present some articles and letters written by Errazti that have not been studied to date and provide a brief explanation of the whole corpus. The data presented in this work provides for a better comprehension of Errazti's texts, and thus a better understanding and definition of Errazti's overall contribution.

KEYWORDS: Karmele Errazti; Emakume Abertzale Batza; 20th-century nationalist press; women's articles; prewar short stories; prewar plays.

LABURPENA: XX. mendearen lehen erdiko bizitza publikoan eta politikoan parte hartzen saiatu ziren emakume abertzaleetako bat da Karmele Errazti. Emakume Abertzale-Batzako lehen lehendakaria izateaz gain, orduko prentsa abertzalean idatzi zuten emakumeetako bat

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet, Karmele Erraztiren corpora osatzeko eta ulertzeko testuak nire esku jartzeagatik, Euskadiko Artxibo Historikoko (EAH) langileei, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboko Pruden Gartzia eta, bereziki, Sabino Arana Fundazioko (SAF) Iñaki Goioganari. Era berean, nire esker ona agertu nahi diet, lan honen inguruko iritzi eta oharrengatik, Amaia Alvarez Uriari eta Iñigo Ruiz Arzalluzi, bai eta kanpoko ebaluatzaile anonimoei ere.

ere bada Errazti, besteak beste. Umeentzako ipuin eta kontakizun labur batzuk, helduentzako antzezlan bat —Keperin Jemein senarrarekin batera— eta, batez ere, artikuluak ondu zituen; horrez gain, gutun pribatuak ere trukatu zituen senide eta ezagunekin. Artikulu honetan, Erraztik idatzitako testuen corpora osatzen ahalegindu naiz, haren testu argitaratuak nahiz pribatuak aintzat hartuta; hala, Erraztik idatzitako —baina orain arte aztertu gabeko— zenbait artikulu eta gutun jarri ditut mahai gainean, eta corpus horren azalpen laburra egin dut orobat. Lan honetan aurkeztutako datuek Erraztiren testuak hobeto ezagutzen laguntzen dute, eta, horrenbestez, baita Erraztiren ekarpena hobeto ulertzen eta zehazten ere.

HITZ GAKOAK: Karmele Errazti; Emakume Abertzale Batza; XX. mendeko prentsa abertzalea; emakumeen artikulugintza; gerraurreko ipuingintza; gerraurreko antzerkigintza.

1. Sarrera

XX. mendearen lehen herenean, emakume abertzaleak bizitza publikoan parte hartzen hasi ziren; oposizio handiko giroan, hitza hartu zuten prentsa abertzalean, aberriaren alde lan egiteko, eta, Libek *Aberri* astekarian egindako proposamenari jarraikiz, Ropero Vasco sortu zuten Bilbon, 1908ko otsailean, batez ere ongintzara begira (Rekalde 2012: 23).² 1922ko maiatzean, beren jarduna ongintzaz harago zabaltzeko aukera izan zutenean, Emakume Abertzale-Batza (EAB) eratu zuten, Bilboko Euzko-Gaztediko sektore aberrianoaren —bereziki Elias Gallastegiren, Euzko-Gaztediko orduko lehendakariaren— babesarekin.³ Barne-

² Purificación Gorostiza *Garbiñe* izan zen prentsa abertzalean idatzi zuen lehen emakumea (Mi ideal. *Aberri* 1906-09-01), eta, 1907-1908 bitartean, emakume abertzaleek idatzitako ia hogeita hamar artikulu argitaratu ziren (Ugalde 1993: 362). 1907ko uztailan, EAJk Aranari Sukarrietan omenaldia egin eta egun gutxira, Rakel Alda *Kataliñek* lehen emakume-talde abertzalea sortzeko proposamena egin zuen (Después del homenaje. *Aberri* 1907-07-27), baina Bittorine Larrinaga *Libek* egokiago ikusten zuen helburu txikiagoekin hastea, eta ongintzara bideratutako elkarte bat sortzeko proposatu zuen (Carta abierta a Kataliñ. Llamamiento a todas las jóvenes patriotas de Euzkadi. *Aberri* 1907-08-03). Nolanahi ere, ongintzaz gain, beste helburu batzuk ere bazituen Ropero Vascok, hala nola euskara irakastea (Perez *et al.* 2022: 21).

³ EABren aurrekariak, jarduna eta eragina ulertzeko informazio zabala ematen dute Larrañagaren (1978), Ugalderen (1993), Bilbao *et al.*-en (2012) edota Perez *et al.*-en (2022) lanek; modu sintetikoagoan —baina orokortasunetik—, EAB dute hizpide baita Uruburuk (1997) edota Ugaldek (1991) ere. Esan bezala, jeltzaleen sektore aberrianoaren barruan sortu zen EAB, baina, EAB sortu ondoren, Comuniónean inguruan ere egon zen beste emakume-erakunde bat —Emakume-Azarri-Bazkuna— sortzeko saiakera; *Euzkadi* egunkariko «Emakumea eta Aberria» izeneko atalaren bidez hauspotu zuten proiektu hori, neurri handi batean Tene Mujikaren ekimenez. 1923an, Emakume-Azarri-Bazkunaren bi talde sortu ziren —Ondarroan eta Deban—, baina apenas lortu zuten Comunióneko gizonen babesik, eta Primo de Riveraren diktadura heldu baino lehen hil zen proiektua (Ugalde 1993: 167-178). 1931tik aurrera, EABren Hego Euskal Herriko taldeetan saretu ziren emakume jeltzaleak;

araudian zehaztutakoaren arabera, jeltzaletasuna zabaltzea zuen helburu EABk, gizarte-laguntzari, kulturari eta ongintzari lotutako jardueren bidez, eta, oro har, EABko *emakumeek* Aranarengandik jasotako doktrinaren sinbolo eta ezaugarri tradizionalak defendatu zituzten, emakumearen ohiko rolak —amarena eta emaztearena— hautsi gabe (Ugalde 1991: 58; Retolaza 2012: 105); nolanahi ere, abertzaletasunaren barnean genero-harremanak ulertzeko modu bat izan zen EAB, ahizpatasuna aldarrikatzeko eta sartzeko egitura bat, eta, beren idazki eta hitzaldietan, *emakumeek* emantzipaziorako urratsak egin zituzten, bai eta proiektu kolektibo batekiko atxikimendua erakutsi ere (Fernández 2012: 276; Goikoetxea 2022: 17, 212; Serrano-Mariezkkurrena 2024: 68).⁴

Joan den mendean emakume abertzaleek eremu publikoan parte hartzeko hasitako bidean, eginkizun garrantzitsua eduki zuen Karmele Erraztik: XX. mendeko lehen bi hamarkadetako prentsa abertzalean idatzi zuten emakume bakanetako bat ez ezik (Ugalde 1993: 89), EABko lehen lehendakaria ere izan zen Errazti, besteak beste. Hala, bai EABren sorreraren aurretik bai ondoren nazio-eraikuntzaren alde eta emakumeen parte-hartze politikoaren alde egindako lanagatik, interesgarria iritzi diot Erraztiren idazmahaiaren ezagutzan sakontzeari. Artikulu honetan, bada, Erraztik idatzitako testuen zerrenda osatua aurkeztuko dut, eta corpus horren azalpen laburra egingo. Orotara, bibliografian aipatuta aurkitu ez ditudan hamabost artikulu baino gehiagoren eta zazpi gutun argitaragaberen berri emango dut —guztiak gerraostekoak—; horren aurretik, baina, Erraztiren testuak kokatzeko oinarrizko datu biografiko batzuk azalduko ditut, eta zenbait ondorio ere gaineratuko ditut amaieran. Lan honen helburua Erraztiren testuen aurkezpen orokor bat egitea denez, ez dut Erraztiren testuen kokapen historikoan sakonduko, ezta arreta handienaz aztertuko ere Erraztik idatzitako testuetako bakoitza; nolanahi ere, Erraztiren ekarpena ulertzen eta zehazten lagunduko duen informazio baliagarria aurkeztuko dudalakoa nago.

Iparaldean, berriz, Piarres Lafitteren eraginez, Begiraleak emakume-taldea sortu zen, 1935ean (Perez *et al.* 2022: 87-88).

⁴ Ezkurdia *et al.* (2024: 94) zera baieztatzen heldu dira: «EAB mugimendu feministak euskal emakume nazionalistak ahaldundu» zituela. Genero-berdintasunaren aldarrikapena irizpidetzat hartuz gero, XX. mende hasierako emakume abertzaleak ezin dira feministatzat jo. Alabaina, ikerlari batzuen ustez, XX. mende hasieran genero-desberdintasuna aldarrikatzen zuten feminismoak ere egon ziren; adibidez, *feminismo erlazonala* eta *maternalista*, emakumearen ama-funtzioari garrantzia ematen ziotenak (Goikoetxea 2022: 76-77). Ugaldek (1993: 62-66), bestalde, Elizak onartutako *feminismo onargarri* delakoarekin lotu ditu emakume abertzaleen mugimenduaren hastapenak.

2. Karmele Erraztiren biografia laburra

Karmele Errazti Perez de Saratxo Bilbon jaio zen, 1885ean, eta erbestean —Pauen— hil, 1954an. 1907an, Ropero Vascon eman zuen izena, eta, 1908an, euskara ikasten hasi zen Bilboko Institutuan, Kirikiñoren eskoletan; hiru urteren buruan, 1911rako, euskalduna —eta aranazalea— zen, eta, 1910etik, Bilboko Euzko-Gaztediko kide. 1921ean, Junta Nacionalista de Socorros de Nuestra Señora de Begoña delakoaren mahaikideetako bat izan zen,⁵ eta, 1922-1923 bitartean, EABko lehendakari gisa jardun zuen, Primo de Riveraren estatu-kolpera arte (Perez *et al.* 2022: 34-35). Errepublikara garaia hasi eta Bilboko EABren zuzendaritza berria aukeratu zutenean, 1931ko ekainean, berriro hautatu zuten Errazti lehendakari, bai eta 1931ko abenduan ere; alabaina, bigarren aldi horretan Erraztik uko egin zion karguari, beste emakume batzuei lekua uzteko. Honela laburbildu zuen Erraztik une horretara arte mugimendu jeltzalearen barruan egindako ibilbidea (*Euzkadi* 1932-01-01):

Muy joven era yo —veintiocho años han pasado, bien lo recuerdo— cuando se fundó Juventud Vasca de Bilbao, causando ello en mi alma una de las más grandes emociones de mi vida. Desde entonces la he seguido paso a paso, colaborando prácticamente en sus clases de euzkera y en otras actividades, hasta la fundación de Emakume Abertzale-Batza. Desde esa fundación, y sin interrupción hasta hoy, he laborado en su presidencia .

EABren zuzendaritza-kideak erdiko klasekoak edota erdi- eta goi-mailako burgesiakoak ziren; Errazti, hain zuzen, Hilario Errazti Atxa negozio-gizonaren alaba zen, eta, 1914an, Keperin Jemein Lanbarrirekin⁶ (Abando, 1887 - Laudio, 1965) ezkondu zen, JEZ (Jemein,

⁵ Euzko-Gaztediak sortu zuen batzorde hori, Marokoko gerrara joandako euskal soldaduei eta haien familiei laguntzeko. *Aberri* astekariak eman zuen batzorde horren osakeraren berri (Por nuestros hermanos en África. *Aberri* 1921-11-12).

⁶ Gaztelaniaz Ceferino Jemein Lambarri, Jemein'dar Keperin izen-abizenek aipatzen zuen berak bere burua: «Nire ixenordia “Jadarrka” da: J'darr K., edo Jemein'darr Keperin» (Jemein 1952: 25). *Amandarro*, *Atzeuko*, *Abandotarra*, *Bachiller de Belandia* —edo, besterik gabe, *Belandia*—, *Paulander de Eyaraldea* eta *Ramón Jatabe* ezizenak ere baliatu zituen Jemeinek (Barandiaran 2024; Arrien & Goiogana 2002: 124). Jemeinek jotarekin idazten zuen beti bere abizena, eta, 1952ko irailean, adibidez, hauxe idatzi zion Patxo Arregiri —Argentinako Acción Vascako lehendakariari eta EAJren Amerikako delegatuari—, Euskaltzaleak elkartetik bidalitako diploma batean «Xemein» —eta ez «Jemein»— idatzi ziotelako (EAH. Funtsa: Ekin argitaletxearen eta Irujo familiaren artxiboa. Erregistro informatikoa: 3328691): «Para terminar voy a decirte que, además, yo no podría aceptar ese diploma, porque no responde a mi apellido, que es Jemein y no Xemein, en buena fonética y ortografía euzkérica, pues el Euzkera no admite *x* inicial, como no sea en voces infantiles, y JEMEIN no es una voz infantil, sino bien varonil, nombre propio de persona y de lugar en Markina (Bizcaya). Los de “Euskaltzaleak” deben de aprender el euzkera (véase “Lecciones de ortografía” de Arana-Goiri)». Hortaz, zalantza askorekin, lan honetan *Jemein* aldaera

Errazti y Zenitagoya) lantegi siderometalurgikoaren bazkide nagusietako bat izango zenarekin.⁷ Koldo Aranaren lagun mina eta Sabin Aranaren jarraitzaile sutsua ere bazen Jemein, bai politikari, bai euskarari zegokionez, eta hainbat ardura eduki zituen mugimendu jeltzalean; besteak beste, Euzko-Gaztediko buruetako bat izan zen, Euzkeltzale-Bazkunako sortzaileetako bat, EBBko lehendakaria, Jaurilaritzako Osasun-Zaingoko idazkaria edota Euzko-Anaitasunako —EAJk gerrako errefuxiatuei laguntzeko sortutako elkarteko— kide (Camino & Guezala 1991; Jiménez de Aberásturi 1999: 40-46). Horrez gain, EAJren historialari ofizial gisa jardun zuen,⁸ eta alderdiaren nolabaiteko kultura-aholkularia ere izan zen.⁹

Gerraurrean, neskame bat zeukaten etxean Erraztik eta Jemeinek, eta, horri esker, EABko zuzendaritzaz arduratzeko denbora izan zuen Erraztik (Ugalde 1993: 136, 312). Gerra garaian, jemein-erraztitarrek Euzko Jaurilaritzaren esku jarri zuten familia-lantegia, eta, Bizkaia frankisten esku geratutakoan, Jemein-Errazti senar-emazteek ondasun guztiak galdu zituzten; isun handia ez ezik, hamabost urteko deserriratze-zigorra ere ezarri zioten Jemeini (Perez *et al.* 2022: 34-37), eta Errazti hil arte bizi izan ziren erbestean: hasieran, Ipar Euskal Herrian egon ziren —batik bat Ainhoan eta Biarritzan—, eta, handik, Pauera lekualdatu ziren, Erraztiren osasun-arazoez behartuta. Pauen, Euzkadiko Gobernuaren delegatu izan zen Jemein, baina 50eko hamarkadara arte ez zuen soldatarik izan, eta, hala, «txirotasun gorrian» bizi izan ziren senar-emazteak erbestealdi ia osoan (Perez *et al.* 2022: 37).

EABko emakume askok ez bezala, Erraztik ez zuen irakasle-ikasketarik egin, baina «kapital kultural handia» zuen (Ezkurdia *et al.* 2017: 15) eta oso frantses-maila ona.¹⁰ Erraztik eta

—eta ez EODAn proposatutako *Xemein* forma— erabiltzearen aldeko hautua egin dut; Tene Mujikaren eta Sorne Unzueta kasuetan ere, adibidez, berdintsu jokatu dut, eta ez ditut erabili Euskaltzaindiak araututako *Muxika* eta *Untzueta* formak.

⁷ Karnele Erraztiren aitak jarri omen zuen enpresa sortzeko dirua, eta Jemein, Joseba eta Enrike Errazti —Karmeleren bi nebak—, eta Zipriano Zenitagoia Lanbarri —Jemeinen anaiordea— ziren enpresako bazkide nagusiak. Horien artetik, Jemeinek eta Joseba Erraztik kudeatzen zuten enpresa (Ezkurdia *et al.* 2024: 97-98).

⁸ Aranaren biografia (Jemein 1935), Aranaren pentsamendua (Jemein 1945), lehen Eusko Jaurilaritza (1987) eta Gerra Zibila (Jemein 1986, 1988) hizpide zuten liburuak idatzi zituen, besteak beste.

⁹ 1938ko martxoan, esaterako, Jemeinek egin zuen —EAJren aginduz— Jule Gabilondo *Maitek* idatzitako *Jel-azia* liburuari buruzko txostena (Sarriugarte 2023: 56-59, 122-129).

¹⁰ 1937ko uztailaren 30eko gutun batean, zera idatzi zion Jemeinek Manuel Intxaustiri: «podría acompañarnos mi señora, que conoce perfectamente el francés» (EAH. Funtsa: Manuel de Ynchausti Romero artxiboa. Erreg. inf.: 3363655). Erraztik behin baino gehiagotan egin zituen bidaia Frantziara: 1937ko irailaren 2an senarrari idatzitako gutunean, esaterako, 1920an senarrarekin batera Parisera egindako bidaia baten berri ematen digu, eta irailaren 3an idatzitakoak, berriz, Lourdesera egindako batez —edo batzuez—. 1950eko maiatzean Alderdin

senarrak batera egin ohi zuten lan etxean, idazkiak —eta, erbestealdian, baita idazmakina ere— partekatuta, Jemeinek berak artikulua batean azaldu zuen lege (Jemein 1952: 25): «Emaztia senarra baño len euzkeraz idazten asi zan. Senarr-emaztiok, bijok dakiz makiñaz idazten eta bijok makiñaz idazten dabe, baña, jakiña, makiña bat baño eztauke, eta bijok makiña berberaz idatzi-biarr. Ulertzalle onari itz erdi». Senar-emazteek liburuz, paperez eta argazkiz beteta izan zuten beti bizilekua, eta euskal gaiei lotutako liburutegi ederra eduki zuten, harik eta 50eko hamarkadan Jemeinek Manu Sotari saldu zion arte.¹¹

3. Karmele Erraztiren testuen corpusa

3.1. Testu argitaratuak

1907-1953 bitartean, Erraztik idatzitako —eta hainbat (ez)izenekin sinatutako— berrogeita hamarretik gora testu argitaratu ziren. Gerraurrean, *Bizkaitarran*, *Euzkadi* aldizkarian, eta Euzkeltzale-Bazkunaren *Euzko-Deyan* idatzi zuen, batik bat, Erraztik. Gerraostean, hamar urteko isilaldiaren ondoren, Baionako Beyris auzotik zuzentzen eta kudeatzen ziren aldizkarietarako kolaborazioak egin zituen, batez ere *Alderdirako*. 1950-1951 bitartean, *Euzko-Gogoan* ere idatzi zuen, eta, 1951tik, Zaitetik zuzendutako aldizkariko lankideen zerrendan agertzen da «Errazti'tar Karmele».

Hona hemen Erraztiren testu argitaratuen zerrenda:¹²

idatzitako artikuluan ere, 1910ean Lourdesera egindako bidaia aipatzen du: «Berrogei urte dirala, Lourdes'era etorri nintzan ni euzko-bidezkunde baten. Bizkaitarrak eta gipuzkoarrak gentozan batera, nire bultzijan bertan mutil bizkaitarr bat eta neskati gipuzkoarr bat, bata bestiaren onduan». Garai hartan, ohikoa zen abertzaleak Lourdesera joatea, Erraztik berak «Euzkadi'ren Bakalduna» artikuluan (*Bizkaitarra* 1911-11-09) esaten duen bezala.

¹¹ 1952ko ekainaren 25ean Maurrinetik (Landetatik) bidalitako gutun batean, hauxe idatzi zion Jemeinek Patxo Arregiri (EAH. Funtsa: Ekin argitaletxearen eta Iruxo familiaren artxiboa. Erreg. inf.: 3328691): «toda mi biblioteca —la mejor probablemente de la que existía de cosas vascas y sobre todo nacionalistas— me vi en la triste necesidad de vendérsela a Manu Sota, que me pagó por ella 250.000 francos, que ¡ay! me duraron poco tiempo en las circunstancias económicas en que desde hace tiempo me desenvuelvo».

¹² Laburdura hauek erabili ditut egunkariak eta aldizkariak aipatzeko: *Aberri* (= *Aberri. Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra*), *Alderdi* (= *Alderdi. Euzko-Alderdi Jeltzalia'ren deya*), *Amayur* (= *Amayur. Jaun Goikoa eta Lege-Zarra*), *Azkatasuna* (= *Azkatasuna. Euzko Gaztedia'ren Aldizkingia*), *Bizkaitarra* (= *Bizkaitarra. Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra*), *Euzkadi CBL* (= *Euzkadi. Revista bimestral de ciencias, bellas artes y letras*) eta *Euzko-Deya* (= *Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra*). Kronologikoki antolatu ditut Erraztiren lanak —eta ez, esaterako, generoka edo gaika—, lan guztien sekuentzia argiago geratuko delakoan. Zerrenda egiteko, lan hauek izan ditut oinarri:

1. E.'tar K. Euzkera'ren alde. Fausta nueva. *Aberri* 1907-10-05.
2. Errazti'tarr Karmele. [1909]. I.g. [= Izen gabe. «Bilboko Euskal-ikasleak» atalaren barruan]. *Euskal-Esnalearen Esku-Egundiya 1910*, 67. Valverde'ren echea.
3. Errazti'tarr Karmele. Gabon'go gotzon bat. *Euzkadi CBL* 8(10) [1911-07/08]. 295-298.
4. Errazti'tarr Karmele. Bakaldun aurreguna. *Euzkadi CBL* 8(12) [1911-11/12]. 463-466.
5. Etxakin. Euzkadi'ren Bakalduna, *Bizkaitarra* 1911-11-09.
6. Etxakin. Sabin'i. *Bizkaitarra* 1911-11-25.
7. Errazti'tarr Karmele. Ume bijotz-samurrduna. *Euzkadi CBL* 9(13) [1912-01/02]. 37-40.
8. Errazti'tarr Karmele. Neguko loreak. *Euzkadi CBL* 9(18) [1912-11/12]. 459-460.
9. Errazti'tarr Karmele. 1914. *¿Amesa? Umientzako ipuñak. Bilbao'ko «Euzko-Gastedija»'k argitaldubak.* Grijelmo'ren Alarrgun-Semien irarrkolea.
10. Jadarrka'k eta Etxakin'ek. 1915. *Oleskari bijak (Bertsolari bijak).* Ausin'darr Josebaren irarrkolea.
11. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. *Euzko-Deya* 16 [1916-10-01]. 8.
12. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Emakumien jakin-biarrak. *Euzko-Deya* 17 [1916-11-01]. 6.
13. Etxakin. Gabon-ipuña. Gabon zoruntsuba. *Euzko-Deya* 20 [1916-12-16]. 6-7.
14. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Sendi-jayak. *Euzko-Deya* 20 [1916-12-16]. 8-9.

Ugalde (1993), Bilbao *et al.* (2012), Perez *et al.* (2022) eta *Jakin* aldizkariaren dokumentu digitalizatuak (<https://jakin.eus/digitalizazioa/emakume-abertzale-batza> [2025-04-18]). Bertan aipatutako erreferentziak banan-banan egiaztatu ditut, bai eta beharrezko zuzenketak egin ere. Barandiaranek (2024) plazaratutako datuei jarraikiz, *Azkatasuna* eta *Alderdi* aldizkariak arakatu ditut, Erraztik sinatutako testuen bila: zerrendan daude aurkitu ditudanak; alabaina, litekeena da Erraztik testu gehiago idatzi izana. Perez *et al.*-en (2022: 36) lanean, beste bi artikulua hauek jasotzen dituzte Erraztiren lanen artean: «Asociadas fundadoras» (*Aberri* 1922-05-12) eta «Se ha constituido la directiva de Emakume Abertzale Batza» (*Euzkadi* 1931-06-24); nolanahi ere, bietako bat ere ez dago sinatuta, eta horregatik ez ditut zerrendan sartu, EABko araudiak sartu ez ditudan bezala —Larrañagak (1978: I, 41-43) 1931ko abuztuaren 15eko araudiaren lehen 15 artikulua jaso zituen; Ugalderen (1993: 252) ustez, 1922ko maiatzaren 7ko araudia 1931koaren bertsua izan bide zen—. Bestalde, «Colaboración femenina» ataleko «Comentando» artikulua (*Aberri* 1923-01-20) ez zuen Erraztik idatzi (Perez *et al.* 2022: 36), ezpada U.T.S.k —alegia, Sorne Unzueta *Utarsusek*—. 1950-1953 bitartean «Emakume batek» sinatutako lanei dagokienez, Jemeinek baieztatu zuen *Euzko-Gogoan* idatzitako artikuluen egilea Karmele Errazti zela —«Gixon bi eta emazte bat baño geyago dira *Euzkera* ta *Euzkadi* “Euzko-Gogoa”n idazten dabenak: [...] “Emakume batek” (Errazti'tarr Karmele) ta “Jadarrka” (Jemein'darr Keperin)» (Jemein 1952: 25)—, eta, edukiagatik, ziurra da *Alderdi* argitaratutako lanen egilea ere badela Errazti (Barandiaran 2024). 30eko hamarkadan oso ohikoa zen *emakume* izenarekin artikulua sinatzea (Ugalde 1993: 371, 373, 391, 416, 423, 514, 522-523); nolanahi ere, Ugaldek ez du —nire ustez, arrazoiz— 30eko hamarkadako testu horietako bakar bat ere Erraztiren lantzat hartzen. Bestalde, argitaratu bezala ematen ditut euskarazko izen eta testuak, baina erratak zuzenduta eta dagoeneko erabiltzen ez diren ikur grafiko gutxi batzuk (*í > rr...*) aldatuta.

15. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Etxekandera onaren ereduba. *Euzko-Deya* 21 [1917-01-01]. 5-6.
16. Etxakin. Euzkeldun-neskatillai. Ekandun (birtute) txikijak. *Euzko-Deya* 22 [1917-01-16]. 4.
17. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Neskatiil-eredubak. *Euzko-Deya* 23 [1917-02-01]. 3.
18. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. *Euzko-Deya* 24 [1917-02-16]. 4.
19. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Neskatiil on-onaren ereduba. *Euzko-Deya* 25 [1917-03-01]. 4.
20. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Atsegin txikijak. *Euzko-Deya* 28 [1917-04-16]. 4.
21. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Neskatiillak guraso-etxian. *Euzko-Deya* 34 [1917-07-16]. 3.
22. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Aizkidetasuna. *Euzko-Deya* 35 [1917-08-01]. 7.
23. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Etxe-ardurea. *Euzko-Deya* 36 [1917-09-01]. 6.
24. Etxakin. Bixigayak. *Euzko-Deya* 43 [1918-01-16]. 6.
25. Etxakin. Diruba egitteko erea. *Euzko-Deya* 47 [1918-03-16]. 4.
26. Etxakin. Euzkeldun neskatiillai. Sendi zoruntsubak. *Euzko-Deya* 54 [1918-07-01]. 2.
27. Errazti'tarr Karmele. Con flores a Sabin, los niños también.... *Aberri. Revista dedicada por Juventud Vasca de Bilbao, al homenaje celebrado en Sukarrieta con asistencia de más de veinticinco mil patriotas, en honor de Arana-Goiri'tar Sabin, el veinticinco de junio de mil novecientos veintidós* 1922-07-31. 34-35.
28. Etxakin. Ikasliak irakasliari. *Euzkerea* 1(2) [1929-02-15]. 21.
29. Errazti'tar Karmele. La presidente electa de Emakume Abertzale-Batza, a todas las asociadas. *Euzkadi* 1932-01-01.
30. Errazti'tarr Karmele. El homenaje de los niños. *Aberri-Eguna. Revista nacida a la luz de un Domingo de Resurrección para perpetuar "El Día de la Patria", recogiendo el eco de la sublime aleluya que un pueblo resurgente entonara aclamando a su salvador* 1932-03/04. 76.
31. Errazti'tar Karmele. Emakume Abertzale-Batza. Un recuerdo en este aniversario. *Euzkadi* 1932-06-18.
32. Errazti'tar Karmele. Recuerdo. *Amayur* 1935-11-30 [= *Aberri* 1922-07-31].
33. Errazti'tarr Karmele. Sabin y «Emakume-Abertzale Batza». *Azkatasuna* (ale berezia) [1945-11-25]. 5.
34. Etxakin (E.A.-B.). En este 4 de febrero de 1948. *Azkatasuna* 39 [1948-02]. 10.
35. [I.g.]. Umientzako Euzkel-Ipuñak. ¿Amesa? *Alderdi* 19 [1948-10]. 18-20. [= Errazti'tarr Karmele. 1914]
36. Etxakin'ek. Euzko-Emakumia ta Aberrija. *Alderdi* 27 [1949-06]. 10.
37. Etxakin'ek. Euzko-Emakumia ta Aberrija. *Alderdi* 29 [1949-08]. 9-10.
38. Etxakin'ek. Euzko-Emakumia ta Aberrija. *Alderdi* 31 [1949-10]. 13.
39. Etxakin'ek. Euzko-Emakumia ta Aberrija. *Alderdi* 34 [1950-01]. 13-14.
40. Etxakin'ek. Nire Eretxija. *Alderdi* 38 [1950-05]. 13.

41. Euzko-Emakume-Abertzale-Batza'ko Etxakin'ek. Emakume oleskarijak. *Euzko-Gogoa* 1(9/10) [1950-09/10]. 14-16.
42. Emakume batek. Euzko-Gogoa. *Euzko-Gogoa* 1(9/10) [1950-09/10]. 36.
43. Emakume Abertzale Batza'ko Etxakin'ek. Arana-Goiri ta Emakume abertzaliak. *Alderdi* 44 [1950-11]. 17.
44. Por Emakume Bat. Subordinación. *Alderdi* 47 [1951-02]. 10-11.
45. Emakume Batek. Bilbao, euzkeldun. *Alderdi* 50 [1951-05]. 13-14.
46. Emakume batek. Juan yakuzan bixitz oroigarriak. *Euzko-Gogoa* 2(9/10) [1951-09/10]. 55-56.
47. Emakume Batek. Emakume goralgarriak. *Alderdi* 58 [1952-01]. 11-12.
48. Emakume Batek. Txaberr'tarr Pantzeska Deuna. *Alderdi* 59 [1952-02]. 11-12.
49. Emakume Batek. Zugatz gomutagarriak. *Alderdi* 60 [1952-03]. 11.
50. Emakume Batek. Jantzikereak eta Jantzikeriak. *Alderdi* 68 [1952-11]. 12.
51. Emakume Batek. Sabindiar Batza ta Euzko emakumiak. *Alderdi* 73 [1953-04]. 12-13.
52. Emakume Batek. Euzkel-gaiz. *Alderdi* 75 [1953-06]. 12.
53. Emakume Batek. Emakumege ezta gauz onik. *Alderdi* 76 [1953-07]. 13.
54. Emakume Batek. Arana Goiri eta Emakume Abertzale Batza. *Alderdi* 79-80 [1953-11]. 40-41.

3.2. Hitzaldiak

Erraztiren hiru hitzaldiren berri ere eman zuen haren garaiko prentsak: lehen diskurtsoa — 1922ko urrikoa— osorik jaso zuen *Aberri* astekariak; gainerako bien kasuan, berriz, kronikak baino ez ditugu:¹³

1. Euzko-Gastedija'n "E.A.-B"ren lendakarijaren euzkel-itxeikixuna. *Aberri* 1922-10-21.
2. Juventud Vasca de Bilbao al Maestro en el XIX aniversario de su muerte. *Aberri* 1922-11-30.
3. Emakume Abertzale Batza. Inauguración del ciclo de conferencias. *Euzkadi* 1931-10-16.

3.3. Testu pribatuak

3.3.1. Senarrari idatzitako gutunak

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko «PNV-227-01» karpetan, Karnele Erraztik 1937ko abuztu-irailean senarrari eskuz idatzitako bost gutun gorde dira —bostak daude gaztelaniaz—:

¹³ Badakigu Erraztik beste hitzaldi batzuk ere eman zituela. Horietako bat Iruñeko EABren inaugurazio-ekitaldian izan zen, 1931ko abenduaren 6an (Larrañaga 1978: I, 79) edo 1932ko urtarilaren 6an (Larrañaga 1978: II, 52); Erraztirekin batera, Jose Antonio Agirre —garai hartan, Nafarroako diputatua— aritu zen hizlari. Donostiako EABn ere beste hitzaldi bat eman zuen Erraztik, 1932an (Larrañaga 1978: II, 52).

1. 1937ko uztailearen 22-25a bitartean idatzitako gutuna.
2. 1937ko abuztuaren 26an idatzitako gutuna.
3. 1937ko abuztuaren 29-30a bitartean idatzitako gutuna.
4. 1937ko irailaren 2an idatzitako gutuna.
5. 1937ko irailaren 3an idatzitako gutuna.

1937ko abuztua eta iraila bitartean, Jemeinek bidaia bat egin zuen Frantzia zehar, EAJren aginduz. Senarra kanpoan zegoen artean, Errazti Ainhoan geratu zen, bikotearen zereginen arduradun, eta zenbait gutun —bost gorde dira, baina badakigu Erraztik gehiago idatzi zituela— bidali zizkion senarrari, Ainhoako egunerokotasuneko xehetasunen eta bertara heldutako albisteen berri emanez. Garai hartako gorabeheren lekukotasuna eman ez ezik, Erraztiren biografia osatzen ere laguntzen dute gutun horiek.¹⁴

3.3.2. *Jose Antonio Agirreri idatzitako gutunak*

Erraztik Jose Antonio Agirreri eskuz idatzitako beste bi gutun ere gorde dira Euskadiko Artxibo Historikoan (Funtsa: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saila. Erreg. inf.: 3436267):¹⁵

1. 1952ko apirilaren 24an idatzitako gutuna.
2. 1952ko urriaren 16an idatzitako gutuna.

Dakigunez, Pauen egoera ekonomiko latzean bizi izan ziren Errazti eta haren senarra: Jemein Jaurlaritzaren delegatua zen bertan, eta, 1951tik, 10 000 liberako dirusaria jasotzen zuen hilero lan horregatik; diru hori, jakina, ez zen nahikoa ordezkaritza-gastuei eta eguneroko beharrei aurre egiteko, baina, gainera, hilabeteetako atzerapenarekin ordaintzen zioten gehienetan. Hortaz, 1951ko ekaina eta 1952ko martxoa bitartean, Jemeinek gutun batzuk bidali zizkion Agirreri, agindutako 10 000 liberak ordaintzeko eskatuz (EAE. Funtsa: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saila. Erreg. inf.: 3436267); alabaina, iritsi beharreko dirua ez zen heldu, antza, eta, 1952ko apirilaren 24an, Erraztik gutuna idatzi zion Agirreri, senarrari zor zizkioten atzerapenak ordaintzeko erregutuz:

¹⁴ Beste artikulu batean (San Juan Manso 2025) ematen dut Erraztiren bost gutunen eduki zehatzaren eta bestelako hainbat xehetasunen berri.

¹⁵ Erraztik eskuz idatzitako bi gutun horiez gain, senarrak makinaz idatzitako beste batzuk ere gorde dira EAHko funts horretan; horietako bi (1952ko maiatzaren 30eko bat, eta 1953ko abenduaren 28ko bat) Karmele Erraztik ere sinatu zituen.

Keperin no se atreve a escribirle a Ud. porque le da vergüenza; pero yo lo hago, porque cada vez estamos más necesitados [...].

El 7 del mes próximo cumplo 67 años y 38 de nuestro matrimonio; ¿no podría Ud. para entonces liquidarnos los atrasos, contribuyendo así a aliviar nuestra situación, y empezar así una época más normal, y no tan apremiante como la que estamos padeciendo?

Erraztiren osasun-egoera kaskarrak eragindako mediku-gastuek txarragotu egin zituzten Jemein eta Erraztiren baldintza ekonomikoak, eta senar-emazteek Agirreren berririk gabe jarraitzen zuten. Hori dela eta, bigarren gutunean, erabat etsita idatzi zion lehendakariari Erraztik. Eskutitzean esaten duenagatik, Txaber Gortazarren bidez —Baionako delegatuaren bidez— saiatu ziren Leizaolari —EAJren Ekonomia Batzordeko kideetako bati— laguntza eskatzen, baina horrela ere ez zuten ezer lortu, eta, horrenbestez, suminduta idatzi zion Erraztik Agirreri, esanez senarrak txarteletarako dirurik ere ez zeukala:

Y seguimos sin noticias de Ud. Keperin me dice que no cabe ya por lo que escribirle, pero yo, que llevo mis cuentas y me asustan, voy a hacerle cariñosamente y con toda sinceridad, aunque créame que también a mí me cuesta.

Según nos escribió Gortazar, parece que le habló a Leizaola de lo que a Keperin le cuestan los gastos de representación y oficina, sellos de correos, papel, sobres, cinta de máquina, etc., para lo que no tiene asignación, descontándolo de lo que recibe, mejor dicho de los que no recibe, porque todavía tiene cinco meses cumplidos por cobrar. Parece que Leizaola le prometió a Gortazar hablar del asunto, pero como han regresado Vds. a París y no tenemos noticias, supongo que el asunto ha quedado en nada. Y se trata de una suma de ¡10.000! frs., irrisoria para la representación que ostenta y el trabajo que realiza. Yo creo que por esa cantidad ningún empleado del Gobierno de Euzkadi trabajará, y desde luego ninguno tanto como él.

Y le voy a contar a Ud. un pequeño detalle. Se van a celebrar en Pau el año que viene [...] grandes fiestas con motivo del cuarto centenario de Henry IV de Francia, y anteriormente III de Nabarra. Iruxo ha escrito a Keperin a este respecto tres cartas que han exigido, naturalmente, tres sellos de correo, tres papeles y tres sobres, y yo creo que Iruxo seguirá escribiendo en todo el tiempo que falta, pero que no se extrañe si un día Keperin no contesta ni a él ni a otros, contra su costumbre, porque Ud. sabe que un grano no hace granero, pero ayuda al compañero y en nuestro caso la ayuda es a desfondarnos y hundirnos más.

Así las cosas, yo le suplico a Ud. que me diga qué representa Keperin en Pau, cuando al acercarse a las autoridades para enterarse de lo que le encargaba Iruxo y pedirle su dirección para seguir informándole tuvo que poner en un “bout de papier” por no tener tarjetas de visita.

Gutunaren amaieran, dirua behar zutela esaten zion Erraztik, eta, dirurik bidali ezean, bigarrenaz utzi beharko zutela beren burua Espainiako kontsularen esku:¹⁶

¹⁶ 1951ko urriaren 16an Jemeinek Arregiri bidalitako beste gutun batean (EAH. Funtsa: Ekin argitaletxearen eta Iruxo familiaren artxiboa. Erreg. inf.: 332869), esaten zion Madriletik ukatu egin ziotela Espainiara itzultzeko 1950eko martxoan egindako eskaera: «El mes de marzo pasado, no pudiendo ya sostener nuestra situación aquí,

Y para terminar por hoy, una sola cosa y es que nos hace falta dinero, precisamente, si no hemos de entregarnos al Cónsul de España, por segunda vez y esta con el agravante de que la anterior nos denegaron.

4. Karmele Erraztiren testu argitaratuak eta hitzaldiak: azalpen laburra

4.1. Gerraurreko testuak

4.1.1. *Lehenengo artikulua (1907-1911)*

Artikulugintzan aritu zen, batez ere, Errazti. Bere lehen artikulua idatzi zuenean, Erraztik ez zekien oraindik euskaraz, baina pozez iragarri zuen lehen hezkuntza «Aitorren hizkuntzan» hasiko zirela irakasten Jesusen Bihotzaren Mirabeen ikastetxean. Erraztik aberria salbatzeko ezinbesteko urrats gisa ikusten zuen euskararen salbazioa, eta, hala, euskaldun guztiak animatzen zituen Bilboko institutuan Kirikiñok ematen zituen euskara-eskoletan izena ematera.

1911rako, Errazti gai zen euskaraz idazteko, eta hizkuntza horretan ondu zituen bere hurrengo bi artikulua, *Etxakin* ezizenarekin sinatu zituenak:¹⁷ «Sabin'i», Aranaren heriotzaren urteurrenaren harira idatzitakoa, eta «Euzkadi'ren Bakalduna», Euzko-Gaztediaren zaindari Ama Birjina Sortzez Garbiaren biharamunean argitaratua. «Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat» leloa aldarrikatu zuen bi artikulua horietan: lehenengoan, itxaropen-mezua igortzen zion Aranari, eta, bigarrenean, abertzaleei eskatzen zion Ama Birjinari otoi egiteko, hark euskaldunei askatasuna eman ziezaien.¹⁸

me vi dolorosamente obligado a hincar el pico acudiendo al Poncio hispano en Pau para pedirle nuestro regreso al Imperio, al arrimo de mi hermana Mercedes y acogiéndonos a la tan cacareada amnistía. Al cabo de seis meses de espera, el de agosto me comunicó que nuestra petición había sido denegada por la Dirección General de Seguridad de Madrid». 1953ko abenduaren 28an Agirrerri idatzitako gutun batean ere, Jemeinek lehendakariari esan zion 1950ean ukatua ziotela Espainiara bueltatzeko eskaera bat, eta 1953ko abenduan bigarren bat egiteko bidea aztertzen ari zirela. Aurretik, 1953ko apirilean, otsaila eta apirila bitarteko atzerapenak eskatzeko idatzi zion Jemeinek Agirrerri, eta, maiatzean, eskerrak emateko gutun bat igorri zion lehendakariari, jasotako 30 000 liberengatik. 1954ko martxoaren 10ean, Jemeinek berriro eskatu zion laguntza lehendakariari, Espainiako Atzerri ministroak bere eskaera bigarrenez ukatu zuela esanez (EAH. Funtsa: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saila. Erreg. inf.: 3436267).

¹⁷ 1910etik, *Bizkaitarra* astekariak bazuen «Colaboración femenina» izeneko atala, gaztelaniazkoa; alabaina, Erraztik euskaraz idatzi zituen bere artikulua, eta, hortaz, atal horretatik kanpo argitaratu ziren (Ugalde 1993: 81, 84).

¹⁸ «Bai, ama kutuna, ta gaurr biztokiko alde gustijetatik abotza jasoten ba-da zeure Sorrkunde Orrbanakua gorestekoa, Euzkadi'ko semiok lenenguak ixan gura dogu geure Ama ta geure Aberrija'ren Bakalduna deituteko. [...] Berak onen orrdez emongo dausku Euzkadi'ren azkatasuna». Euskaldunek Lourdesera egindako errromesaldiak ere aipatzen ditu bertan: «lenengoz iru anei ta geyago Lourdes'era eltzen ziran zeuri esateko

4.1.2. *Ipuinak eta umeentzako irakurgaiak (1909-1916)*

10eko hamarkadan, ipuingintzari ere lotu zitzaion Errazti. Ibilbide horretako lehen urratsa 1909an eman zuen, Kirikiñoren eskutik, eta haren euskara-eskoletan Erraztik idatzitako testu labur bat argitaratu zuten *Euskal Eснаlearen* 1910eko *Esku-Egundiyan*. 1907ko artikuluan bezala, euskararen aldeko mezu bat igorri zuen Erraztik bertan: «Geure zañetan euzko-odola ba-daruago, zabaldu dagigun il-agiñian dagon euzkerea; eta azkatasun-eguzkijak argituko dau geure Aberri maitia» (67. or.). 1911-1912 bitartean, umeak JEL doktrinan hezteko lau irakurgai didaktiko argitaratu zituen *Euzkadi* aldizkarian, denak euskaraz:¹⁹ «Gabon'go gotzon bat», Gotzone izeneko ume baten jainkozaletasuna ardatz duena;²⁰ «Bakaldun aurreguna», Errege-eguneko oparien ingurukoa; «Ume bijotz-samurrduna», Leon XIII.a aita santuari buruzkoa, eta «Neguko loreak», Ama-Euzkadiren umeak zintzotasunera bideratzeko idatzitakoa.²¹ Lan horietan guztietan, testu garaikideetan ohikoa zen joerarekin bat egiten du Erraztik, eta gertaera jakin batetik (gabonak, umearen ametsa...) edo omendu nahi duen pertsona batetik abiatuta ondu zituen bere testuak (Etxebarria 2000: 393-394). Aranek zabaldutako doktrinan, aberriko lege zaharren gainetik zegoen Jaungoikoaren legea (Etxebarria 2000: 391), eta, aita santuari buruz idazteaz gain, Mateoren ebanjelioko hitzak txertatu zituen Erraztik «Bakaldun aurreguna» ipuinean ere: «Irakaslaririk jarraitu eban: Goizparran irakurten dogu “Eskatu ta artuko dozube” [Mt 7.7] baña Josu Kristo'k bai-ekijan lez ume ta gixonen eskiak zuzenak ixango etziralara beti, orregatik otoi-eredu bat egorri euskun, auxa da: “Geure Aita Goikua” [Mt. 6.9] neugaz ¿esan gura dozube?» (465-466. or.).

Aberrija'ren ordezkari joyazala ta zeure jopubak ixan gura dogula, zeu, geure Bakalduna zara ta». Arana ere Lourdesera joana zen bere ezte-bidaian (Jemein 1935: 281).

¹⁹ Jeltzaletasunak emakumeen gain utzi zituen hezkuntza eta hizkuntza, eta, Erraztik ez ezik, beste emakume batzuek ere idatzi zituzten, garai bertsuan, euskarazko testu hezigarriak; esaterako, Tene Mujikak (Goikoetxea 2022: 61-62). Garai hartako emakume abertzaleen testuek erakusten duten nazio-konpromisoa agerikoa da baita Iberiar penintsulako beste nazio batzuetan idatzitakoetan ere (Sánchez-Pinilla 2012: 59).

²⁰ Kirikiñok idatzitako ohar honekin argitaratu zen testu hori (298. or.): «Neskatilla au erdalduna zan orain iru urte; exekijan euzkerarik ezer. Asi zan Bilbao'ko *Instituto*'ko euzkel-ikastolara juaten, eta jarraitu dautso ikasten ondo jakin arte bai idazten eta bai itz-egiten. [...] buru argija dau ta bijotza sutsuba, ta onez ganera *Jel*-maitale zintzua da».

²¹ Testuaren amaieran (460. or.), Kirikiño izan zuen gogoan Erraztik: «Zorijontsubak, txiki-txikitan au irakurri dagikezubenak, eta neu be irakaslari bateri eskarrak, euzkel-jakimenez eta ontasunez betia, geure ele ederraz itz-egin eta idatzi dagiketzubedalako. Berari neure betiko eskarr-ona».

1914an idatzitako *¿Amesa?* ipuinak ere gozamenaren bidez Aranaren ideiak umeengan ernarazteko helburua zuen (Etxaniz & Fernández de Gamboa 2020); zigor-eraztunaren kontra idatzitako ipuin hori Bilboko Euzko-Gaztediaren *Umientzako ipuñak* sailean argitaratu zen.²² Baliteke Arturo Campiónen *Blancos y negros* (Iruñea, 1898) eleberriaren oihartzuna egotea Erraztiren ipuinean; ametsaren gaia ohikoa izan zen garai hartako euskal ipuinetan,²³ baina, aurreratu bezala, Euzko-Gaztediko kideek oso presente zeukaten elementua du ardatz Erraztiren testuak: eraztun-zigorra. Eli Gallastegik, adibidez, —Karmele Erraztik ondo ezagutzen zuenak— eraztunarekin lotutako pasartea zuen gogokoen Campiónen lanetik; hainbestearino, non pasarte hori transkribatu zuen eskolako lan baterako (Lorenzo 1992: 32, *apud* López 1998: 192; Zuberogoitia & Zuberogoitia 2008: 58):

El trabajo que yo presenté fue la escena brutal que tanto me conmovió [...] de *El anillo*, de la novela *Blancos y negros* de Campión, en la que surgen vigorosamente los caracteres de “Martinico”, el maestro Balda y “Cuadrau” [...]. Y como personaje mudo, fríamente delator como el metal, el infamante “anillo” que proporcionaba al desgraciado niño que lo llevara un castigo brutal por haber hablado en euzkera con sus propios compañeros euzkaldunes. [...] volví a mi pupitre sintiendo la satisfacción de haber puesto allí en evidencia, ante los demás alumnos y ante el profesor español, el sistema de enseñanza que España empleaba con la *murder machine*, la máquina asesina de nuestro idioma nacional y de nuestro carácter.

1916ko abenduan, «Gabon zoruntsuba» izeneko gabon-ipuina euskaratu zuen Erraztik, balore kristauen transmisioan amek duten eginkizuna azpimarratzen duena.²⁴

²² Sail berean, Mujikaren hiru ipuin argitaratu zituzten, besteak beste: *Antontxo*, *Koldobika ta Jon* eta *Zorionaren jauregiya* (Goikoetxea 2022: 233).

²³ *¿Ametza!* izenburua zuen, adibidez, Petra Belaustegik (1909) urte gutxi lehenago idatzitako ipuinak —Euskal-Esnalearen 1909ko lehiaketan lehen accesita irabazi zuenak—, eta, Erraztiren liburuaren sail berean, ametsa —amesgaitza— ardatz duen beste ipuin bat inprimatu zen: Gauzekitzen (1914) *Margarite'ren ames ixukorra*.

²⁴ J. B. Hégoren testuren batetik «euzkaraldu» zuen Erraztik ipuin hori, baina ez dut lortu jakitea zeinetatik. *Catalogue collectif de France* delakoan, Hégoren ipuin-bilduma bakarra aurkitu dut, 1916. urtea baino lehenago argitaratutako lanen artean: Hégoren liburu horretan, bada «L'anniversaire. Récit de Noël» izeneko ipuin bat (Hégo 1896: 179-190), eta bertan, Erraztiren ipuinean bezala, Paul izeneko ume bat agertzen da. Nolanahi ere, ipuin horren testua ez dator bat Erraztik euskaratutakoarekin, eta, beraz, nago bestelako bildumaren batetik atera zuela Erraztik Hégoren testua.

4.1.3. Teatro-lan bat (1915)

1915ean, *Oleskari bijak* «euzkel-antzeztija» ('komedia') idatzi zuen Erraztik senarrarekin batera. Teatro-lan horrek bigarren saria erdietsi zuen Euzkeltzale-Bazkunak antolatutako lehiaketan,²⁵ eta, Jemeinen (1956b: 43) esanetan, batzoki askotan antzeztu zuten.

Erraztik aurretik idatzitako testuek bezala, doktrina jeltzalea zabaltzeko helburua zuen *Oleskari bijak* antzezlanak ere, eta senar-emazteek Kepa Enbeita «euzko-oleskaririk gorengo ta bikañenari, aberrtzale zindo, bijotz-maitekorra ta aizkide on-onari» eskaini zioten beren teatro-lana. Bertan azaltzen diren bi bertsolariek bi euskaldun-eredu kontrajarri gorpuzten dituzte: Jon abertzalea da, baina Mikel, ordea, ez. Biek maite dute Edurne «zurra [...] ta gustiz jaungozalia» (24. or.), eta, hark eskatuta, bertsolari-txapelketa baten bidez erabakitzen dute nor ezkonduko den neskarekin. Jonek Mikelek baino bertso hobeak botatzen ditu txapelketan, baina epaileak abertzaleen arerio dira, eta, Jonek aberriaren aldeko bertso sutuak bota dituenaz, Mikeli ematen diote saria. Mikelek, hala ere, Jon jotzen du garaitzat; hortaz, hari ematen dio saria, eta aberriarenganako maitasunarekin ordezkatzan du Edurnerenganako maitasuna.

Antzezlanaren hari nagusia hori den arren, mende hasierako abertzaleen artean kezka eragiten zuten zenbait gai ere aipatzen dira lanean; besteak beste, Jaunaren hitzari jarraitu beharra eta gazte abertzale askoren Ameriketarako ihesa. Abertzaletasunaren aldeko mezua zabaltzeko, bestalde, pisu berezia duen beste pertsonaia bat azaltzen da antzezlanean: Amandarro agurea. Dakigunez, *Amandarro* zen Jemeinek bere testuak sinatzeko erabili ohi zuen ezizenetako bat, eta, 1950eko «Emakume oleskarijak» artikuluan ere, Amandarroren abestiak aipatuko zituen Erraztik;²⁶ *Oleskari bijak* antzezlanean, baina, Amandarro agureak zabalago kontatzen du Otxandioko Amandarro zaharraren istorio mitikoa (19. or.):

Bertsolari orrek abestu euskun "Amandarro" zarraren egite goragarrija. "Amandarro" zarra itxultzen zan bere etxera, seme gustijak ilda itxita Otxandio'ko zabaletan Bizkaya'ren arerijua atzera bere errira bidaltuta gero. Eta bere emaztiak itandu eutsonian, begijak negarrez beterik: "¿Nun dozak neure bijotzeko zatijak? ¿Nun dozak ene bijotzeko semiak?" Amandarro'ren erantzuna ixan zala: "Amandarro'k etxon semerik, baña Bizkaya'k etxon buztarririk".

²⁵ Luis González Etxebarri *Aizkibel'dar Bingenen Jai alai* lanak ere lortu zuen saria urte horretako lehiaketan. Garai horretan Bizkaian idatzitako beste teatro-lanetako bat da Kirikiñoren *Anton Berakatz* (Zubikarai 1991: 13-18).

²⁶ «Aldi berean Amandarro'ren [...] abestijak entzuten ziran» (*Euzko-Gogoa* 1(9/10) [1950-09/10]. 15).

Literatura foruzaleak behin baino gehiagotan izan zuen hizpide Amandaroren semeen elezaharra.²⁷ Litekeena da, hala ere, Errazti eta Jemeinen iturria bat etortzea Colomborenarekin (1936: 205); alegia, *Vida Vasca* aldizkarian argitaratutako testu honen egilearen iturriarekin:

El 25 de agosto de 1355 se libró formidable batalla entre los vizcaínos, mandados por D. Juan de Abendaño, contra las tropas del rey de Castilla, Pedro I el Cruel, hermano éste de D. Tello, mandadas por Juan de la Cerda, habiendo salido victoriosos los vizcaínos. En esta batalla se derramó mucha sangre. Todos los habitantes de la villa lucharon con las tropas de Abendaño en defensa de la independencia de Vizcaya. Hubo uno que perdió a cinco hijos en aquella batalla: Amandarro. Al terminar aquella refriega, Amandarro recorrió el campo de batalla, hallando los cadáveres de sus cinco hijos. Y al regresar a su casa sólo y preguntar su compañera por los cinco hijos, Amandarro, con un rugido patriótico, y dando por bien empleada la sangre de sus hijos, le contestó: «Amandarro no tiene hijos; pero Vizcaya no tiene yugo».

4.1.4. *Neskatila euskaldunak jeltzaletasunean hezteko aholkuak (1916-1918)*

1916ko otsailean, Euzkeltzale-Bazkunak *Euzko-Deya* aldizkaria sortu zuen. Tene Mujika izan zen aldizkarian kolaboratu zuen lehen emakumea, urte horretako apiriletik aurrera (Ugalde 1993: 85), eta, 1916ko urria eta 1918ko uztaila bitartean, «Euzkeldun neskatillai» zuzendutako hamahiru artikulu idatzi zituen Erraztik, etxeakoandregai) euskaldun abertzaleen jokabide egokiari buruzko eredu eta proposamenekin. Erraztiren hitzetan, gizonak beti zeukan nork irakatsi, baina emakumeak, aldiz, ez, eta are gutxiago euskaraz; horrenbestez, emakume euskalduna «ondo menduba ixateko» (*Euzko-Deya* 1916-10-01) —alegia, JEL doktrinaren arabera hezteko— zenbait aholku eskaini nahi izan zituen (Rekalde 2012: 24): «Neskatilla batek jakin daiken gustija ezta gauza, sendi edo *pamiliya* zaindu ta etxia atonduten ezpa-daki. Etxekandera-geya ixateko ikastola edo eskolatik urten dan neskatilleari jakin erazo biar-yakoz etxeke biarrkun edo obligaziño gustijak, beti zoriontsuba izan daitela gura-ezkero» (*Euzko-Deya* 1916-10-01).

²⁷ Amandaroren semeen kontakizunaren beste bi bertsio ezagutzen ditut: Vicente Aranarena (1880, 1882: 15-58) eta Delmásena (1904). Aranaren bertsioak XIV. mendean kokatzen du Amandaroren istorioa, banderizoen gerren garaian. Calahorrako apezpikuak Bizkaiko lurak bereganatu nahi izan zituen, eta bizkaitarrek Otxandion egin zioten segada apezpikuaren armadari; hura hiltzea ere lortu zuten, baina Amandarro alargunaren bi semeak ere —Alonso eta Iñigo bikiak— gudu hil ziren, nahiz eta Amandarro bere semeak bertatik aldenarazten saiatu zen. Delmásen (1904) bertsioan, berriz, Eurikoren osteari egiten diete aurre bizkaitarrek, Honorio enperadorearen garaian (V. mendea); aitaren bedeinkazioarekin borrokatzera abiatu eta gero, Amandaroren hiru semeak —Astor, Uchin eta Iciar— Eurikoren kontrako gudu hiltzen dira, «Betzaide» mendiaren inguruan.

Euzko-Deyan argitaratutako artikulu-sortan, jeltzaletasunak eta kristautasun ortodoxoak emakumeari ezarritako betebeharrekin bat zetozen hainbat ideia zabaldu zituen Erraztik:²⁸ emakumea dela bere birtuteekin etxeari eusten dion besoa; berak ekarriko duela zoriontasuna eta itxaropena etxera; ikasi egin behar duela, baina harropuztu gabe eta alaba-, emazte- edo ama-beharrek alde batera utzi gabe; guztien maitagarri izatearen ordainetan, besteen aurrean burua makurtzeko prest egon behar duela; errukiorra eta barkabera izan behar duela eta, aldi berean, bere atsekabeak disimulatu behar dituela; garbia eta langilea izan behar duela; etxeko ekonomia ondo eraman behar duela, edota, ama gaixorik badago, hari lagundu behar diola. Ugalderen (1993: 85-89) esanetan, familia eta etxea bere buruaren gainetik maite zituen emakumearen irudi horren bidez, sumisiora eta despertsonalizaziora bideratzen zuen metodoa eskaini zuen funtsean Erraztik, nahiz eta hori ez zuen helburu; horrez gain, ordea, Erraztiren ekarpenaren beste irakurketa batzuk ere egin daitezke.²⁹

1921ean, *Euzkadi* egunkariko «Emakumea eta Aberria» atalean, «Miren Itziarr'i idazkiak» izeneko hemeretzi artikulu argitaratu zituen Mujikak —gerora, abertzaleen artean piztutako interesagatik, liburu-eran argitaratu zituenak, berak idatzitako beste poema batzuekin batera (Mujika 1923)—. Emakume nazionalisten arketipoa azaldu zuen Mujikak artikulu-sorta horretan (Rekalde 2012: 23), eta, Erraztiren testuetan bezala, abertzaletasunari kritikatzeko zaion atzerakoikeria ikusi dute ikerlari askok Mujikaren testuetan (Goikoetxea 2022: 76). Testu horiek irakurtzean, hala ere, gogoan izan behar dugu, batetik, kristautasunaren kode moral estua —bere balio sozialekin, justiziaren zentzuarekin eta maitasunaren aldarriarekin— kode etiko bat zela jeltzaleentzat (Goikoetxea 2022: 43), eta emakume abertzale gehienak konforme zeudela, gainera, jeltzaletasunak eta erlijioak gizartean ematen zien eginkizunarekin, Etxebarriak (2000: 391) azaltzen duen bezala:

²⁸ Besteak beste, haxe idatzi zion Aranek Nikole Atxikallende emaztegaiari 1899an —ezkondu baino lau hilabete lehenago—: «tú me debes a mí la adhesión y sumisión que la Iglesia debe a su esposo Jesucristo» (Agirreazkuenaga 2010: 58; Sarriugarte 2023: 74-75). Aranaren ideologia irudikatutako emakume-ereduari buruz eta ideologia horrek emakumeari ezarritako genero-harremanei buruz luze aritzen da Ugalde (1993: 32-50).

²⁹ XX. mendeko emakume abertzaleen azterketari heltzeko moduari dagokionez, Rekaldek (2012: 21-22), esaterako, azpimarratu izan du orduko egoera eta bizi-baldintzak «irudikatzea oso lagungarria» dela, «emakume horien ekintzak *balio urrikotzat edo hutsaltzat* ez hartzeko». Ildo bertsutik, Tene Mujikaren lanaren berrirakurketa bat egin berri du Goikoetxeak, «60ko hamarkadaz geroztikako paradigmatic egindako irakurketa murritztaileak» gainditzeko (Goikoetxea 2022: 23); EABko emakumeak hainbat zapalkuntza-ardatzen intersekzioan egon direla jarri du agerian Goikoetxeak lan horretan, eta, ikuspuntu intersekzionaletik, Mujikaren ekarpena zertan datzan erakusten saiatu da, beste gauza askoren artean.

Por lo tanto, puede decirse que ciertos conceptos aparecen bastante ligados: mujer - mujer vasca - madre - compromiso con el pueblo. Pero estas mujeres se muestran satisfechas con su condición de mujer y la tarea que les corresponde tanto en la familia como en la sociedad, y son conscientes de su deber y su compromiso.

Bestalde, ezin dugu ahaztu emakume abertzaleek *mainstream* misoginoan negoziatu behar izan zutela ahots publikoa izatea (Goikoetxea 2022: 77, 115); Erraztik berak esaten du *Euzko-Deyako* gizonen baimenarekin idazten duela, edota bere testuak «gogaikarriak» direla,³⁰ 10eko hamarkadan emakume batek prentsan idaztea ausarkeriatzat jotzen baitzen (Larrañaga 1978: I, 34). Testuinguru horretan, beraz, «emakume abertzaleek esaten zutena bezain garrantzitsua» —edo ia— zen «esatea bera» (Goikoetxea 2022: 58), eta, emakumeen aurkako nolabaiteko bortxa erabilita ere, Erraztiri aitortu behar diogu, bai emakumeentzako argudio-multzo berariazkoa sortzen saiatu izana —Mujikak Miren Itziarri zuzendutako idazkietan egin zuen bezalatsu (Goikoetxea 2022: 107)—, bai —zuzen ala oker— emakumeek etxean egiten zuten lanaren balioespenaren bidez emakumeen aitortza bilatu izana (Crespo 2022: 105).

1918an *Euzko-Deyan* idatzitako beste bi artikulutan (1918-01-16, 1918-03-16), Lehen Mundu Gerrak etxeko ekonomian izandako eragina izan zuen hizpide Erraztik: bi lan horietako lehenengoan, 1914-1918 urteak bitartean prezioek izandako gorakada aztertu zuen, eta, bigarrenean, etxean xaboia egiteko errezeta bat eman zuen, dirua aurrezteko bide gisa; Erraztiren bi artikuluko horien ildo beretik idatzi zuen, adibidez, Julene Azpeitiak *Osasuna, merketza eta yanaritzaz* (Bilbo, 1922) liburuko sarrera, Erraztiren artikulua argitaratu eta lau urtera.³¹

4.1.5. 20ko eta 30eko hamarkadetako kolaborazioak (1922-1935)

1922-1935 urteak bitartean, data seinalatuetan bakarrik idatzi zuen Erraztik; gehienetan, EABko lehendakariaren —edo lehendakari-ohiaren— karguak ematen zion legitimaziotik. 1922ko uztailan, adibidez, Bilboko Euzko-Gaztediak Aranari Sukarrietan egindako omenaldiari buruz *Aberri* astekariak argitaratutako aldizkari berezian, omenaldiko hainbat uneri eta sinbolori buruz idatzi zuen; besteak beste, umeei Aranari egindako lore-eskaintza izan

³⁰ «“Euzko-Deya” zuzentzen daben mutillak laketu (*permitidu*) dauskube-ta, ekin dayogun geure arluari» (*Euzko-Deya* 1916-11-01); «Irakurrlerik gitxi eukiko dodala bai-dakit, neure jardunak gogaikarriak dira-ta» (*Euzko-Deya* 1918-07-01).

³¹ Emakumeen heziketa —hots, etxekoandre ona izateko heziketa— EABko hezkuntza-ardatzetako bat izan zen hasiera-hasieratik (Perez *et al.* 2022: 110-112). Azpeitiaren lanean, agerikoa da garaiko higienisten eragina (Fernández 2012: 283).

zuen hizpide, bai eta EABko emakumeek omenaldirako prestatutako banderak ere. Erraztik aurreko hamarkadan idatzitako beste testu batzuen oihartzunak nabari dira 1922ko artikulua horretan: *¿Amesa?* ipuinean bezala, umeak eta zigor-eraztuna izan zituen berriro hizketagai Erraztik, eraztuna zeraman ume bat Aranek nola lasaitu zuen gogoratuta; bestalde, «Bakaldun aurreguna» ipuinean bezala, Mateoren ebanjelioko hitzak aipatu zituen Erraztik, eta, Arana ia Jainko modura irudikatuz, Jesusen hitzak jarri zituen Irakaslearen ahotan: «Dejad que los niños se acerquen a mí» ‘Utzi haurrei niregana etortzen’ (*Mt* 19.14).

1929an, Kirikiñoren heriotza-urtean, haren omenezko testua idatzi zuen *Euzkerea* aldizkarirako, busturiarraren euskara-eskolak gogoan, eta, 30eko hamarkadan, Erraztiren lau artikulua argitaratu ziren: abenduaren 31n sinatutako idazkian (*Euzkadi* 1932-01-01), EABko lehendakari-kargutik dimisioa ematen zuela jakinarazi zuen;³² 1932ko martxoan argitaratutakoan, Aberri Egunean umeek Sabin Etxean egindako omenaldiaz jardun zen, eta, 1932ko ekainean —alegia, EAB berregituratu zeneko lehen urteurrenean— idatzitakoan ere, EABren ibilbideari buruz aritu zen.³³ 1935ean *Amayur* astekarian argitaratutako artikulua, berriz, 1922an *Aberri*ren ale bereziko atondutako testu bera da.

4.1.6. *EABko lehendakari gisa emandako hitzaldiak (1922-1931)*

1922ko urriaren 15ean, ikastaro berriari hasiera emateko jaia antolatu zuen Euzko-Gaztediak, eta Erraztik ekitaldi horretan emandako hitzaldi osoa argitaratu zuen *Aberrik* —

³² Testu horretan, Erraztik eskerrak ematen zituen berriro EABko lehendakari hautatu zutelako, baina, karguak txandaka bete behar zirela azalduta, dimisioa ematen zuen. Erabaki horren oinarrian beste arrazoi batzuk ere bazirela esaten zuen Erraztik: arrazoi horiek EABko Asanbladari dagoeneko azalduak zizkiola baieztatzen zuen, eta EABko edozein kideri ere azalduko zizkiola, hala eskatuz gero. Erraztik zuzenean aipatu ez arren, badirudi jeltzaletasunaren barruko eztabaidek eragin zutela Erraztiren dimisioa. Izan ere, nahiz eta 1930ean jeltzaileen baitako bi sektore nagusiak —Aberriko independentistak eta CNVko autonomiazaleak— berriro elkartu ziren, 1931ko koiuntura politikoak —autonomia lortzeko aukera ematen zuenak— egoera ahulean utzi zituen aberrianoak. Hala, ematen du 1931ko urte bukaeran emakume-talde batek auzitan jarri zuela Erraztiren lidergoa, eta, hori dela eta, Erraztik uko egin behar izan ziola lehendakari-karguari, Euzko-Gaztediko lehendakari Eli Gallastegik egun gutxi lehenago egin zuen bezalatsu. Bere idazkian EABn laguntzen jarraitzeko prest agertzen bazen ere, ematen du Errazti EABtik aldendu zela alderdiaren barneko eztabaida horien ondorioz, eta ez omen zen berriro agertu EABren egoitzatik (Ugalde 1993: 309-311). 1932ko urtarrilaren 18ko bileran, Teresa Azkue aukeratu zuten EABko lehendakari (Larrañaga 1978: I, 91).

³³ 1932ko testu horretan jasotako ideietako bat hauxe da: etxe barruko bizitzarako berezko atxikimenduak ere ezin izan zituela emakumeak aldenarazi jeltzaletasunaren aldeko borrokan aritzetik: «Su natural recato, su apego a la vida del hogar, ¿serían obstáculo para tomar parte en esta cruzada por Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra? No».

ezbairik gabe, EABren aldeko propaganda egiteko asmoz (Ugalde 1993: 152)—.³⁴ Bere diskurtsoan, «amaitu-zorijan dagon udaldi onetan iñoiz baño gogorrago, sakonago, ta ugarijago jel-azija erein» zutela baieztatu zuen, besteak beste, Erraztik, eta eskerrak eman zizkien euskara-eskoletan izena eman zuten irakasle eta ikasle guztiei. Euskara ikasteak denbora eta lana eskatzen zuela gogorarazi zuen Erraztik, eta, emakumeak EABra hurbildu nahian, emakumeek ere aberriaren alde zer esana eta egina bazeukatela azpimarratu zuen:

Gixonik geyenak, eta emakumerik geyenak be, zoritzarrez, emakumia eztala Aberri-gaizkakunde onetan sartu biarr uste ixaten dabe, an *politikia* dalako ta emakumia sukalderako bakarrik menduba ixan biarr dalako. Neuk dirautzuket ori uste dabenak okerr uste dabela. Aberrija gustijoena da, bai gixonena ta bai emakumiena; eta bere biarrak gustijai dagokiguz. Aberrija'ren zorijona emakumiagana be eltzen da, ta bere zoritxarra, sarritan, gixonai baño sakonago. Sukalderako emakumia menduba ixan biarr dala, nik eztot ukatuko, alantxe da-ta. Baña sukaldian, amaika negarr urten dira emakume euzkeldunen begijetatik, Aberrija'ren joputasunak erakarrita. (*Aberri* 1922-10-21)

Handik hilabete batera, 1922ko azaroaren 25ean, Aranaren heriotzaren hemeretzigarren urteurrena ospatzeko ekitaldi literario-musikala antolatu zuen Euzko-Gaztediak Bilboko Sociedad Filarmónicaren egoitzan, eta bertan ere hitzaldia eman zuen Erraztik. *Emakume* baten lehen agerpen publikoa izan zen hori —Euzko-Gaztediko egoitzatik kanpo— (Larrañaga 1978: I, 37), eta Erraztik emandako mintzaldiaren kronika argitaratu zuen *Aberrik*. Kronika horren arabera, zenbait emakume abertzale aitzindari goraipatu zituen Erraztik bere diskurtsoan; besteak beste, Garbiñe, Mirentxu eta Tene prentsa-kolaboratzaileak, Pauliñe eta Pantzeske Arana-Goiri ahizpak,³⁵ bai eta Catalina Sota ere —Ropero Vascoren diruzain ohia, hitzaldia baino egun gutxi lehenago zendua (Ugalde 1993: 156)—. Jarraian, Aranak irudikatutako emakume abertzalearen ezaugarriak aztertu zituen, *Libe* antzezlaneko pasarte batzuk irakurrita: bere hitzaldian, Erraztik femininotasunaren eta abertzaletasunaren eredu gisa aurkeztu zuen Libe, Erausoren eta *Varona* (edo *Barona*) delakoaren gizon-jarrera borrokazalea arbuaiatuta. Azkenik, Aranak deskribatutako emakume abertzalearen eredua jarraitzera eta Aranaren irakaspenak betikotzera adoretu zituen EABko emakumeak.³⁶

³⁴ Ordura arte, emakume baten hitzaldi bakarra argitaratua zuten —osorik— egunkari abertzaleek: Paulina Ramosek EAB sortzeko bileran emandakoa (*Aberri* 1922-04-15).

³⁵ Ugaldek (1993: 365) azaltzen duen bezala, Ivone d'Arispek ere, esaterako, lehen emakume abertzale gisa gogoratu zuen Pantzeske Arana-Goiri, 1931n *Euzkadi* egunkarian argitaratutako artikuluko batean (La mujer vasca juzgada por Sabin. *Euzkadi* 1931-11-25).

³⁶ Erraztiren hitzaldi horren eta 1931ko urriaren 15ean emandakoaren iturrien gaineko hainbat jakingarri ematen ditut beste artikuluko batean (San Juan Manso inprimategian).

Bederatzi urte geroago, 1931ko urriaren 15ean, EABk antolatutako mintzaldi-zikloaren hasiera-ekitaldian eman zuen hitzaldia Erraztik.³⁷ Ziklo horrek arrakasta handia izan zuen eta, emakume guztiek lekua izan zezaten, gizon gehienei galarazi zitzaien sarrera, gobernuko delegatuari, kazetariei eta beste autoritateren bati salbu; emakumeak izan ziren, beraz, Erraztiren hitzaldiko entzule gehienak (Ugalde 1993: 346). *Euzkadi* egunkarian argitaratutako kronikaren arabera,³⁸ EABren historiaren berri eman zuen Erraztik bere diskurtsoaren hasieran. Ondoren, Marie Gasqueten *Ce que les femmes disent des femmes* liburutik (Paris, 1931) ateratako iritzi batzuk azaldu omen zituen, emakumearen alde nahiz kontra —kronikak ez du zehazten zein—, iritzi horien gaineko balorazio kritikorik egin gabe. Jarraian, emakumeek gizonengan izandako eraginaren erakusgarri, hainbat emakume —mitiko nahiz erreal— aipatu zituen,³⁹ eta, ondoren, emakumeek ikastearen alde azaldu zen Errazti, baldin eta emakume- eta ama-zereginak alde batera uzten ez bazituzten eta harropuzten ez baziren, Molièrereren *Les femmes savantes* laneko emakumeak bezain barregarri gera ez zitezen.

Orobat, emakumearen egitekoa familiatik eta etxetik harago zegoela aldarrikatu zuen Erraztik hitzaldi horretan, eta emakumearen esku zegoela, bai emakumearen beraren egitekoa, bai gizonarena:

La mujer moderna se ha dado ya cuenta de que su misión no puede circunscribirse a la familia y al hogar, sino que ha de hacerse extensiva a la sociedad. Ha de ser, en la vida actual, algo parecido a lo que fueron los apóstoles. [...] ¿Es la mujer lo que el hombre quiere que sea, o, por el contrario, es el hombre y la humanidad las que están influenciadas directamente por la mujer en su triple papel de hija, esposa y madre? [...] en la vida real resulta que el hombre no está donde él creía que estaba, sino donde ella ha querido que esté. (*Euzkadi* 1931-10-16)

Erraztik ez ezik, emakume abertzale gehiagok —beste askoren artean, Jule Gabilondo Maitek edota Teresa Zabalak (Ugalde 1993: 380-381)— zabaldu zuten aberria emakumeen

³⁷ EABk antolatutako ziklo horretan, Monzónek, Sorne Unzuetak, Manu Sotak, Lauaxetak eta Jose Antonio Agirrek ere eman zituzten hitzaldiak, besteak beste (Ugalde 1993: 346).

³⁸ Larrañagak (1978: II, 47), bestalde, Erraztiren hitzaldiaren gai-ordena hau jaso zuen: «“E. A. Batza”. Su origen y fundamento. ¿Qué es la mujer? Lo que las mujeres dicen de los hombres. Lo que dicen los hombres. La mujer en la Historia (Antiguo Testamento, Era Cristiana, Vida moderna). La cultura de la mujer. Nuestros días. La mujer vasca. Consideraciones».

³⁹ Bibliatik, Ester, Rut, Noemi, Dalila, Sabako erregina, Herodias, Salome, Marta eta Maria aipatu omen zituen; Grezia eta Erromatik, Tais, Lais, Lisistrata, Kleopatra eta Lukrezia, eta, ondorengo garaietatik, Ingalaterrako Viktoria erregina, Santa Teresa Jesusena, Angulemakoko dukesa, Fernán Caballero —Cecilia Böhl de Faber—, Kristina Saboiakoa, Concepción Arenal eta Joana Arc-ekoa.

berezko —eta ezinbestezko— dohainen esku zegoelako ideia. Ugalderen (1993: 573) esanetan, emakumearen bigarren mailako rola onartzeko nolabaiteko ordain gisa zabaldu zituzten emakume abertzaleek amatasunaren idealizazioarekin eta emakumearen neurrigabeko gaitasunekin lotutako ideia horiek, hori egitean genero-hierarkia ezkutatzen ari zirela ohartu gabe. Alabaina, XX. mendeko lehen hamarkadetan, gizon abertzaleek —eta ez guztiek, gainera— jeltzale izaten —ez politikari izaten— uzten zieten emakume abertzaleei, eta, gizon horiek emakumeak espazio publikoan onartuko bazituzten, emakumeek amaren rola baliatu beharra zeukaten ezinbestean (Goikoetxea 2022: 115); egiteko hori onartuta, beraz, emakumea berresteko bide bat zen rol horren idealizazioa.

4.2. Erbesteko artikulak

4.2.1. Azkatasuna (1945-1948)

Azkatasunan argitaratu zuen Erraztik erbestean idatzitako lehen artikulua, 1945eko azaroaren 25eko alean.⁴⁰ Arana goraipatzen zuen testu horretan, jeltzaletasunaren aitzindari, apostolu eta profeta gisa aurkeztuta: «todo nos lo diste hecho [...]: Lema. Doctrina. Bandera». Alabaina, horrez gain, batez ere EABren aitzindaritzat aurkeztzen zuen Arana Erraztik: «Pero lo que no saben seguramente los hombres es que también tú, Maestro, concebiste y nos diste “Emakume-Abertzale-Batza”». Eta, horren erakusgarri, Aranak 1898ko apirilean Mikel Lardizabali idatzitako gutun argitaragabe bat aipatzen zuen; Miren arrebaren —*Bizkaitarraren* lehenengo bazkideetako baten— heriotzagatik doluminak emateko idatzi zion gutun hori Aranak, eta, besteak beste, hauxe adierazi zion emakumeek abertzaletasunean zeukaten egitekoari buruz: «Solo el día en que el patriotismo llegue al corazón de la mujer podremos estar seguros del triunfo».⁴¹

Artikulu hori idatzi eta bi urte eta erdira, 1948ko otsailean, beste bat idatzi zuen «Colaboración femenina» atalean, Concha Azaola lagun maiteari zuzendua.⁴² Artikulu horretan, Agate Deunaren egunean Bilboko Euzko Gaztediak antolatu ohi zuen erronda ekarri

⁴⁰ Gerraurrean idatzi zuten *emakumeen* artetik, Pantzeske Astibia *Onintzeren* lanak ere jaso zituen *Azkatasunak*, Erraztirenak ez ezik (Barandiaran 2024).

⁴¹ Maitasuna zen, izan ere, emakumearen edo amaren figuraren nolakotasunik bereizgarrienetakoa, eta, hori dela eta, hari zegokion —ia gizonari baino gehiago— abertzaletasuna; hala adierazten dute, esaterako, Jule Gabilondo *Maiteren* testu batzuek (Sarriugarte 2023: 45-46) edota Tene Mujikarenek ere (Ugalde 1993: 101).

⁴² Ropero Vascoren idazkariordea izan zen Azaola, eta, 1935etik aurrera, EABren zuzendaritza-taldeko *alma materra* (Ugalde 1993: 492; Arrien & Goigana 2002: 183, 185).

zuen Erraztik gogora: nola ibiltzen ziren kalez kalez abesten Bidebarrieta kaletik hasita, nola betetzen zuten zakua «txindi»z eta «laurleko»z, edota nola geratzen ziren hotzak jota eta euriak bustita bertaratutako guztien aurpegiak.

4.2.2. Alderdi (1948-1953)

EAJren barne-aldizkarian gehien idatzi zuen emakumea izan zen Errazti.⁴³ 1948ko urriko alean, 1914an kaleratutako *¿Amesa?* berrargitaratu zuten *Alderdi*n —egilearen izenik gabe—, eta, 1949ko ekaina eta 1950eko maiatza bitartean, Etxakinek sinatutako sei artikulua argitaratu zituzten; lehenengo laurek lauko sail bat osatzen dute, denak «Euzko-Emakumia ta Aberrija» izenburupean agertu baitziren.

Sail horretako lehenengoan, emakumearen parte-hartze politikoa defendatzen zuen Erraztik, aberriaren eta sendiaren arteko analogia batean oinarrituta; bere idazkian, orobat, sukaldea emakumearen berezko lekua zela onartzen zuen Erraztik, baina, sukaldeko sua zaintzeko zereginetik abiatuta, beste egiteko garrantzitsu baten ardura ezartzen zion emakumeari: abertzaletasunaren sua elikatzearena. Honela azaltzen zuen emakumearen eginkizun hori Erraztik:

Eztabaida aundijak sorrtu dira ia emakumia aberri-arazoetan sarritu biarr danetz, alderdijetako goraberatan sarritu biarr danetz; emakumia sukaldian dauka bere biarra esan daroe, ta abarr eta abarr.

Egija da, ta euzko-emakumiak eztogu ukatuten, emakumiaren lana etxe-barru, sendi-barru, sukalde-onduan dagola lenengo-lenengoz, an «Etxeko-Andera» lez aginduten eta aleginduten. Bai, ori egija da; baña sukaldian lenen-lenen biarr dana suba da. Orregaitik, antziñeko aldijetan suba iraungorr, ezilgorr euzko-sukaldietan etxeko-andereak gorde edo jaboten eben. Baña sukaldeko suba etxeko-andera euzkotarrak euren etxietan bixirik jaboten eben bitarrtian, Euzko-Aberri-Sukaldietan suba itzali ta itzaliten joyan eta auspero bat baño etzan, galduriko azkatasunaren autsak estalduta.

Orduban, gixon miragarri bat agertu zan bapaten, ortzian izarr distiratsubak agertzen diran lez; eta ija itxalirik eguan suba piztu-erazo eban. Ordutik, Euzkadi'ko emakumiak bai-dogu aberrijan lan onuratsu bat, geuria beti ixan biarr-ixango zan lana Aberri-sukaldeko suba iraungorra egin eta illezkorr jabotia.

Bigarren artikuluan, aberria «buru-eskeintzez» elikatzearen garrantziaz hitz egiten zuen; alegia, norberak zeukan guztia —«ogasuna, osasuna, atsegiña, bijotza, odola, bizitza»— aberriaren alde ematearen garrantziaz. Horren adibide, Gexo-Zain-Bazkunaren bidez emakume abertzaleek eritegietan eta kartzeletan egindako lana gogoratzen zuen Erraztik, bai eta artikulua

⁴³ Erraztik ez ezik, Margarita Unzalu *Amagoyak*, Pantzeske Astibia *Onintzek* edota Sorne Unzueta *Utarsusek* ere idatzi zuten aldizkarian (Barandiaran 2024); 1949ko ekaineko eta 1950eko urtarileko aleetan argitaratutako artikuluetan, maitasunez agurtu zituen aspaldiko lagun horiek Erraztik. 1954an Errazti hildakoan, apenas argitaratu zen *Alderdi*n emakumeren batek idatzitako lanik, Barandiaranek (2024) esandakoaren arabera.

idazteko unean aberriaren sua elikatzeko —erbestetik nahiz aberrian bertan— lan egiten ari zirenean ere. Ondoren, 1922an EAB nola sortu zen gogoratzen zuen, baita erakundeak bere lehenengo aldian (1922-1923) egindako lana ere (euskara-ikastaroak, mekanografia-ikastaroak, ongintza-lanak, literatura-jaialdiak, etab.). Bukaeran, EAB sortu aurretik aberriaren alde lan egin zuten bi emakume ekartzen zituen gogora: «Arana-Goiri'tarr Pauliñe» —«Sabin eta Koldobika'ren arrebea»— eta «Gorostitza'tarr Garbiñe» —«Jeltzale-izparringijetan agertu zan lenengo emakume idazlia»—.

«Euzko-Emakumia ta Aberrija» saileko hirugarren artikuluan, AEBren bigarren aldia (1931-1936) izan zuen hizpide; besteak beste, umeentzako ikastolak, emakumeentzako eskolak —«etxekandera zurrak eta zuzenak ixan daitezentzat»—, baita erakundea Euskal Herriatik zabaltzeak ekarri zituen bestelako egitasmoak ere, hala nola Euzko-Emakume Abertzaleen Bazpatza eta 1936ko Baionako Batzarra, Hego eta Ipar Euskal Herriko emakume-taldeekin. Laugarren artikuluan, berriz, EABk umeei begira egindako lanari heldu zion; Donostian antolatutako lehen «poxpolin» eta «gaztetxu-batzak», 1931ko abenduko «Euzkadi'ko Gaztetxu-Batza», umeen ikastolak eta 1931ko Gabon-eguna ospatzeko ekimenak (jaioberrientzako saskiak, Euzko-Gaztediko gabon-zuhaitzeko opariak...) aipatzen zituen artikuluan, batik bat, eta Urteberri zoriontsua opatzen zien irakurle guztiei.

Emakumea eta aberriari buruzko lauko sail horren ostean, «Nire Eretxija» izeneko artikulua argitaratu zuen, euskararen batasunaren gainean zeukan ustea plazaratzeko. Jemein-Errazti senar-emazteak bezala, Seber Altube ere Pauen —Jemein-Erraztiren hotel berean— bizi izan zen erbestealdian (Astigarraga 1989: 36); EAJren barruan, hasieratik euskararen batasunaren alde agertu zen alderdikide bakanetako bat izan zen Altube —*Udala* eta *A. Lertxundi* ezizenekin idatzi zuen *Alderdin*— (Barandiaran 2024), eta, ziurrenik, Altuberi entzundakoek eta irakurritakoek izango zuten nolabaiteko eragina Erraztiren artikuluaaren hasierako hitz hauetan:

Aspaldijon, gixonak artega dabilta, urrduri ta kezkatu, atsedetik artu ezinik, euzkel-batasuna dala-ta [...]

Irurogei urte baño geyago dirala, gixonak eztabaida gogorrenetan asi ziran, ia euzkelgiyak batu biarr diran ala ez, zelan batu biarr diran eta zer egin biarr dogun Euzkera bakarra egiteko. [...] Zenbat txistu, ingi ta idazkura edo tintin galdu dan olako eztabaidetan. Eta alperrik, gero. Alperrik diñot, eta olantxe da, ixan be, orain irurogei urte lez gagoz-ta.

Euzkerea pixkanaka-pixkanata ba-duakigu, ezta batasuna dala edo ezta. Euzkerea duakigu euzkeldunok eztogulako eutsitzen, eztogulako jasoten. Euzkerea eutsin eta jaso-erazoteko ezta beste biderik au baño: bakotxak dakijan eraz erabiltzia: bizkayeraz dakijanak, bizkayeraz itz-egin eta idatzi; gipuzkeraz dakijanak, gipuzkeraz itz-egin eta idatzi; txukuna dakijenak, euzkera txukunaz egin dagijela egin; eta euzkera kutxuduna dakijenak be barrdin. Ona emen emakume baten eretxija.

Hitz horien ostean, leku guztietako euskaldunak betidanik elkartu izan direla erakusten zuten zenbait adibide ematen zituen Erraztik; zehazki, aipatzen zuen nola joaten ziren gipuzkoarrak eta bizkaitarrak batera Lourdesera, nola biltzen ziren Azkueren etxean Euskal Herri osoko euskaldunak, eta, gerra garaian, nolako abegi ona egin zieten lapurtarrek Hegoaldeko euskal herritarrei. Horrek ondorio argi batera eramaten zuen Errazti: «Beraz, nire ustez beintzat, euzkelgijak eztira errudunak, geu baño. Ona emakume baten eretxija».

Badirudi 1950eko ekainean Jemeinek bertan behera utzi nahi izan zituela bai berak bai emazteak *Alderdira* egindako bidalketak, aldizkariaren maiatzeko aleko editoriala dela eta:⁴⁴ Julio Jauregik —aldizkariaren arduradunak— ekainaren 12an Jemeini bidalitako gutun batean, Jemeinek hilaren 8an berari idatzitako gutun bat aipatzen du, eta, Jauregiren gutunetik ondorioztatu daiteke horixe eskatzen ziola Jemeinek hilaren 8an idatzitako gutunean; nolanahi ere, ekainaren 19an Jauregiri bidalitako beste gutun batean, arazoa konpondutzat eman zuen Jemeinek (SAF-EBB-116-02).

1950eko azaroan argitaratu zuten *Alderdin* Etxakinek sinatutako azken artikulua, «Arana-Goiri ta Emakume abertzaliak» izenekoa. Aranaren heriotzaren urteurrenaren harira idatzitako idazki horretan, EABren sorrera Aranari zor zitzaiola erakutsi nahi izan zuen Erraztik, eta EAJren sortzailea emakumeen parte-hartze politikoaren alde zegoela defendatu zuen: «Sabin'ek emakume abertzaliak maita ta goratu ebazala esango dot. Ori gixonak ez-edo dakije, baña jakin-erazoko dautset nik gaur emen». Horretarako, Aranak Miren Lardizabalen nebari idatzitako gutuna —1945ean *Azkatasun*arako idatzitako artikuluan dagoeneko aipatua zuena— izan zuen hizpide Erraztik berriro, eta Aranak gutun horretan idatzitako hitz hauek gogorarazi zituen: «Miren anderalako emakume abertzale ta zuzenak biar-doguz Euzkadi'n [...]. Emakumiaren bijotzera abertzaletasuna elduko dan egunian bakarrik garaikundiaren eskijer egongo gara».

1951ko otsaila eta 1953ko azaroa bitartean, Erraztiren beste hamar artikulua argitaratu ziren *Alderdin*; horiek, baina, *Emakume Batek* ezizenarekin sinatu zituen Erraztik. Gaztelaniaz idatzi zuen goitizen horrekin izenpetutako lehenengo testua: «Subordinación». Nazioartean Francoren erregimenari ematen ari zitzaion babesa kritikatzeko bertan Erraztik:

⁴⁴ Garai hartan, Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federalean (CFE) parte hartu zuen EAJk, nahiz eta alderdiaren sektore ortodoxoena —Jemein barne— ez zegoen batere ados EAJ kontseilu horretan egotearekin. 1950eko martxoko *Alderdin*, Kontseiluko bilera batera joan izanari buruz idatzi zuen José María Lasartek, eta, urte horretako maiatzeko editorialean, Europako federazioaren alde EAJk egindako lana ontzat eman zuen nolabait *Alderdik*; horrek erabat haserrearazi omen zuen Jemein (Barandiaran 2024).

Estas consideraciones me las sugiere el año de 1950, que va a terminar y que tan pródigo ha sido en acontecimientos tristes para el mundo del ideal; [...] año de claudicaciones en el que se niega lo que antes se afirmó, se olvida lo que se prometió y se admite como bueno, y hasta como conveniente y necesario, lo que antes abiertamente se condenó y lo que se negó ayuda. Y así se mantiene todavía en el Estado español un régimen de dictadura, que las naciones llamadas demócratas dijeron iban a ahogar negándole toda ayuda. No obstante, esa ayuda es hoy más eficaz que lo ha sido en los catorce años de existencia de la dictadura misma, que se tambaleaba ya, y hoy está en plan de resurgir porque lo que ayer se le negó hoy se le presta.

Estatu demokratikoen jarrera ez ezik, zenbait abertzalerena ere izan zuen hizpide Erraztik; izan ere, Erraztik aditzera ematen duenez, abertzaletasunaren barruan baziren JEL doktrinari iskin egiten ari zitzaizkionak, EAJ Aranaren irakaspenen mendeko zela ahaztuta:

Y así mi tema de hoy se llama SUBORDINACIÓN, porque hay vascos a quienes asustan aquellas palabras [de Arana-Goiri], luminosas como todas las suyas, y que él declaró irrevocables en la DOCTRINA POLÍTICA infundada a SU PARTIDO: «Tales son la *independencia* entre la Iglesia y el Estado, la *harmonía* entre uno y otro y la *subordinación* de lo civil a lo religioso que se derivan del lema nacionalista vasco [...]». Esta doctrina [...] es la que hoy proclama el Partido Nacionalista Vasco, y todo[s] sus afiliados la mantienen e invocan, porque están contenidas en el lema JEL y para ser afiliado del Partido Nacionalista Vasco es necesario aceptar primero el lema.

Hay, sin embargo, algunos vascos a quienes se les hace duro aceptar esa doctrina, pero yo digo que esa es la de Arana-Goiri, más clara que la luz del día, que dentro del Partido Nacionalista Vasco no se puede discutir. Habría, en todo caso, que hacerlo fuera.

Aranaren doktrinaren harira, Espainian Eliza eta Estatuaren arteko banaketarik ez zegoela salatzen zuen Erraztik —«Si esta doctrina se practicase tal como queda descrita no [...] sucederían las que suceden en el Estado español, que se llama católico»—, baina, batez ere, jeltzaletasunak JEL doktrinaren inolako aldaketarik ezin zuela onartu aldarrikatzen zuen: «no caben modificaciones, supresiones ni aumentos, sin desvirtuar la doctrina en JEL contenida, porque en el lema JEL concretó Arana-Goiri todo lo que consideraba esencial al Nacionalismo Vasco».

1951ko maiatzean argitaratutako artikuluan, Bilbo eta euskara izan zituen idazgai Erraztik, bilbotarra izatearen nolabaiteko harrotasunaz: «Bilbao urija, Euzkadi'ko uririk erdeldunena zan gure aldijetan. Baña eun urte lenago Bilbao uri guztiz euzkelduna zan, eta azken-aldijetan, erdelduna ixan-arren, uririk euzkeltzaliena». Artikuluan, Bilboko hainbat euskal toponimo aipatzen zituen (Ibeni, Larrinaga, Belostikale...), hiriaren jatorrizko euskalduntasunaren erakusgarri, eta, erdaldunen etorrerarekin Bilbo erdaldundu bazen ere, bertako erdaran «amaika

euzkel-itx erabiltzen» zirela nabarmentzen zuen Erraztik.⁴⁵ Bestalde, hiri erdalduna izanik, Bilbok euskeraren alde egindako lana azpimarratzen zuen: «Egiz esateko, euzkeltzaletasuna Bilbao'n jayo zan. Bilbao ixan da euzkerearen alde ekin daben eguneroko, asteroko, izparringi, aldizkingi ta euzkel-ikastola geyen emon dauzana. Ta, azkenez, Bilbao'n bertan “Euzkeltzaindija” jayo zan».

1952ko urtarrilean, «emakume goralgarri» bat izan zituen hizpide: Florence Nightingale (1820-1910), «emakume gexozañen iraslia». Erraztiren esanetan, «gixonak egin daben au, ori ta bestia sarribai-sarri entzuten dozube, baña emakume goralgarriak nekez ezautzen dozubez»; horrenbestez, Nightingalaren biografiaren daturik aipagarrien berri laburra ematen saiatu zen Errazti, eta Nightingalek Krimeako gudan erizain gisa egindako lana azpimarratu zuen. Artikuluaren amaieran, Nightingalaren nolabaiteko oinordeko gisa aurkezten zuen Gexozain-Emakume-Batza, eta euskal *gexozainek* gerran zehar egindako lana goraipatzen zuen.

Hurrengo hilabeteko alean, Frantzisko Xabierkoaz aritu zen, santuaren heriotzaren lauhungarren urteurrenaren harira. *Xavier* izenaren etimologia (*Etxeberri/Txaberri* > *Txaberr* > *Xavier*) azaldu ondoren, santuaren nafartasuna eta euskalduntasuna aldarrikatzen zuen Erraztik, «españarrak eta pantzetarrak Txaberr'tarr Pantzeska deunaren aintza» eurenganatzeko nahiaren gainetik:

Eta benetan naparrtarra ixan zan, ez pantzetarra ta ez españarra. Txaberr'tarr Pantzeska odolez eta elez euzkotarra ixan zan, eta lagiz nafarrtarra; aldi aretan, be, bera jayo zanian, 1506'garren urtian, Nabarra Laterri azke bat zan. Orduban Nabarra ezeguan ondiño ez España'ren bian eta ez France'ren bian, bere egiazko Bakalduna'ren bian baño. Txaberr'tarr Pantzeska, ba, naparrtarra da, ta naparrtarra ixanik, euzkotarra, ta bere aintza geuria, euzkotarrena.

Gaztelarrek Nafarroako Erresuma berenganatu nahi izan zutenean Frantzisko Xabierkoa atzerrira abiatu zela gogorarazten du Erraztik, eta, hala, «gaurrko euzkotarr atzerrikatubak Zaindari'tzat arrtu biarrko gendubala» defendatzen du.

Urte bereko martxoan argitaratutako artikuluan, Euskal Herriko «zugatz gomutagarri»ei buruz hitz egin zuen Erraztik. Gerediagako arbola, Uztaritzekoa eta Gernikakoa aipatu zituen bertan —«euzkotarrak, antzin antziñetik, zugatzen azpijan euren lagijak egiten ebezalako» ezagun direnak—, baita Bilboko beste bi zuhaitz enblematiko ere —1953rako ez zeudenak—: Abandoko Arbieta deritzona (El Arbol Gordo ere delakoa) eta Areatzako astigarra (El Tilo del Arenal ere izenekoa); baina, batez ere, Mallatu Zugatza delakoaz (El Arbol Malato ere

⁴⁵ Bilboko gaztelaniaren zenbait berezitasun azaltzen zituen Erraztik, eta litekeena da Arriagaren (1896: 295) *Lexicón* delakotik atera izana Erraztik lanean aipatzen duen Bilboren etimologia (*amil-bao* ‘amil-bean’ > *Bilbao*).

deritzonaz) jardun zen Errazti bere artikuluan. Elezaharren arabera, Bizkaiko muga markatzen zuen zuhaitz horrek; Bizkaiaren kontrako gudetan bizkaitarrek arerioak mendean hartzen zituztenean, bertaraino eramaten omen zituzten etsaiak, eta handik aurrera aske uzten: «Orrelakoxiak ziran gure asabeak [...]. Euren Aberrija zindo gordetzen eben, baña bestiena bakian laga». Erraztiren esanetan, atzerritarrek ez dute inoiz euskaldunek bezain zintzo jokatu, eta, hori dela eta, «ludija buruz-bera dabil. [...] Gure Errijan be barrdin jazoten da. Franco'tarrak gure Aberrira etorri ziran eta ezpataren bidez azpiratu ginduzan euzkotarrak». Nolanahi ere, euskaldunen aldeko aldarrikapen batekin ixten du bere testua Erraztik: «Baña eurek gura edo gura ez, Euzkadi ta España'ko mugea Mallatu aretza ixango da».

Azaroko alean, euskaldunen janzkeran erreparatutako aldaketei heldu zien Erraztik: «Benetan, aldi guztijetan billobak amamaen jantzikereatzaz barre-egin dabe. Eta urrengo billobeak be oingo amamaen jantzikereatzaz barre-egingo dabe. Olakoxia da ludi-aldakuntzia». Gizonen janzkeran eta orrazkeran, baita bizarra eta bibotea eramateko moduan ere, aldaketak egon ohi direla aipatzen zuen Erraztik, baina emakumeen modan ikusten zuen aldaketa gehien; hainbestearaino, non ohitura garbiak erabat galduta zeudela uste zuen:

Orain jasoten dana [...] larregi geyegizkua da. Ondartza edo playetan ikusten dana oso lotsagarrija da. Emakumiak ija billoxik dabiltz eta gero era orretan ondartzatik kalera etorriten dira. Eta ondartzatik ez tala be, barruko urijetan, emakume batzuk lotsagabeko itxurian ibiltzen dira.

Erraztiren arabera, holakoak Frantzia bakarrik gertatzen omen ziren lehen, baina, *Eclesia* eta *La Vanguardia Española* egunkari katoliko eta falangistetan irakurritakoagatik,⁴⁶ Espainiara hedatua zegoen dagoeneko «ekandu zikin» hori. Ohitura gaitzesgarri hori ez ezik, mundu osora zabaltzen ari zen beste moda bat ere izan zuen Erraztik hizpide: emakumerik ederrena aukeratzeko sariketena. Erraztiren esanetan, «sariketa orretara neskatiila asko agertzen dira, lotsa galduta, sarija irabazi guraz. Baña ekandu ori gaiztua, zirtzina, zikiña dalako, Doipuru Deunak neskatiilari olako sariketara aurkeztutia gebendu dautse».⁴⁷ Artikulu horretan, emakumeen artean zabaldutako beste janzkera berri batzuk ere aipatzen zituen Erraztik — gizonezkoen moduko praka luzeak edo bizikletan ibiltzeko gona-prakak, esaterako—, eta

⁴⁶ Bere lehen artikuluan ere (*Aberri* 1907-10-5), Espainiako prentsari erreferentzia egin zion Erraztik, *La Gaceta del Norte* aipatuta.

⁴⁷ Urte asko lehenago, lehiaketa horien gaineko testu bat idatzi zuen Lizardik (Andereño Izardi), eta haien zentzugabekeria salatu (Otaegi 2000: 300-301).

horietako bati ere ez zion txarto irizten.⁴⁸ Artikuluaren amaieran, beldurrez azaltzen zen, Francoren agindupeko ustelkeriak ez ote zituen euskal emakumeak kutsatuko; Erraztiren arabera, baina, emakume abertzaleak beti izan dira begiragarriak janzerari dagokionez, eta beren ohitura onei eutsiko zietelakoan zegoen.

Sabindiar-Batzaren eskariz idatzi zuen 1953ko apirileko artikulua, Aranaren heriotzaren 50. urteurrena bete baino hilabete gutxi batzuk lehenago: «Sabindiarr-Batza'ren gixonok dei bat egin dauste niri Baskun orren alde zezoz idazteko. Ni sabindiarra nazan ezkerre ta beti ixan nazan-ezkerre, deyarri erantzun gura dautsot eta ona emen ni Sabindiarr-Batza'ren alde idazteko gertu». 1950eko irailaren 14an sortu zuten Sabindiar-Batza —Jemein izan zen haren bultzatzaileetako bat—, baina, Erraztik gogorarazten duen bezala, elkartea sortzerakoan «gixonai bakarrik dei-egin eutsien eta gixonak bakarrik batu ziran an. Etziran orduan emakumiakin gogoratu. Eta geruago be aitzuta itxi dabez euzko-emakumiak». Errazti bera elkarteko emakume bazkide bakanetakoa omen zen, eta, Sabindiar-Batzaren alde hitz egiteko baino areago, emakumearen parte-hartze politikoa aldarrikatzeko baliatu zuen bere artikulua: mende hasieratik emakumeek abertzaletasunaren alde egindako lana gogoratu zuen, eta Arana bera emakumeen parte-hartzearen aldekoa zela defendatu, 1950eko azaroan idatzitako artikuluan esandakoaren ildotik. Bere testuan, itzulingururik gabe zuzendu zitzairen Sabindiar-Batzakoei, elkartera emakume abertzaleak banan-banan gonbida zitzatela eskatuz:

Asikeratik ni bazkidetu nintzan, baña nik dakidala emakume gutxi dira bazkide. Ba' liteke iru edo lau geyenez ixatia. Eta au ezta emakumien erruz, gixonen erruz baño. Eurek uste-ixan dabe Sabindiarr-Batza gixonena bakarrik dala. Baña orretan oker dagoz gixonok.

Antziñan be, gixonak uste-eben politika ereisten eutzoena gixonena bakarrik zala, ta emakumiak [s]utondorako egiñak. Baña Sabin'ek berak ezeban olakorik uste-ixaten. Eta argi ta garbi esan eban beñola, emakume-barik ezebala abertzaletasunak garaituko.

Sabin'aren dei orreri erantzunik, euzko-emakumiak batu gintzazan eta «Euzko-Emakume Aberrtzale-Batza» sorrte genduban.

Oingo gixonak ¿aiztu ete dira aberrtzaleatasunaren alde euzko-emakumiak egin dogun ekintzaz?

Alan dirudi beintzat, euren deyak beti gixonai bakarrik zuzendubak diralako. Baña euzko-emakumiak, benetako sabindiarrak, bai-dira ondiño be ludijan [...].

Orain Sabindiarr-Batza'ren gixonak Sabin'en idazkai guztijak argitaldu-gura dabez eta zabalgundia egiteko dei batzuk egin dabez. Eta azken-deyan esaten dabe orretarako Sabin'en ikasle guztijen laguntzasuna biarr-dabela. ¿Gixonena bakarrik ondiño be?

⁴⁸ 1933an idatzitako artikulua batean (Prakak... prakadunak... prakagabeak. *Euzkadi* 1993-09-30), berriz, gizonak gizartearen —eta politikan— zeukaten zereginaren sinbolotzat jo zituen Tene Mujikak prakak, eta emakumeek jantzi hori erabiltzearen kontra azaldu zen (Ugalde 1993: 364).

Nik ba, asmo bat gogoerazo gura-dautset Sabindiarr-Batza'ren gixonai. Begiratu dayela ia euren bazkide-ixengadetan zenbat emakume ete-diran. Gero ludijan sakabanatuta dagozan euzko-emakumien ixengada bat egitia, ta banan-banan, baktxari bazkidetuteko eskatzia.

Orobat, Erraztik argi eta garbi salatu zuen gizon jeltzaleen jarrera baztertzailea, eta agerian jarri zuen gizon abertzaleek egoera jakin batzuetan eta zeregin jakin batzuetarako bakarrik jo izana emakumeengana:

Lenagoko urtietan, urte zorijontsubetan, zubek emakumiai sarri dei-egiten zeunskuben zuben lan-biarretan, naiz euzkel-ikastolak gertatzeko, naiz ume-batzak sortzeko, naiz txiruai laguntzeko, naiz gexotegijetan gexuak eta zauritubak osatzeko, naiz auteskundieetan laguntzeko, ta abarr eta abarr.

¿Eta orain? Orain Sabindiarr-Batza sortu dozube, benetan ondo sortuta, baña orain be zuben albuian euzko-emakumiai euki-biarr dozubez.

Egin, ba, urte onetan, Sabin'en eriotzaren berrogetamar urteurrenien zabalgunde sakona euzko-emakumien artian [...].

Eta Sabin onak guztijok onetsiko gauz Donoki'tik: gixonak eta emakumiai.

Artikulu horretan adierazi bezala, Aranaren lan guztiak argitaratzeko ahaleginean zebilen Sabindiar-Batza —besteak beste, Arana abertzalea ez ezik euskaltzalea ere bazela erakusteko asmoz—. Ekaineko alean, bada, Aranak (1902) euskarazko hitz batzuen gainean egindako zenbait proposamen hartu zituen hizpide Erraztik: *euskal* vs *euzkel/euzko*, *Euskalerrria* vs *Euzko-Erri/Euzkadi* eta *izkera/izkuntza* vs *mintzai/mintzo* hitzen ingurukoak, hain zuzen.⁴⁹

Uztaileko alean ere, apirileko artikuluari eman zion jarraipena Erraztik. Hark zioenez, «antzineko aizkide gurgarri batek zorijonak» bidali zizkion apirileko alean emakumeen alde idatzitakoagatik, eta, lagun horrek «atzerritik» igorritako gutunean oinarrituta idatzi zuen Erraztik uztaileko artikulua. Izenbururako, lagunak helarazitako lau hitz aukeratu zituen Erraztik —«Emakumege Ezta Gauz Onik»—, eta, artikuluaaren hasieran, lagun horrek gogora ekarritako zenbait emakume eredugarri aipatu zituen: Eba, «bizi garanen ama [...] eta [...] gure gaizkatzallaren ama»—; Santa Monika, San Agustinen ama; Jeronimoren ondoan egondako «Eustoki ama-alabeak» —Paula eta Eustokia—; Santa Teresa Avilakoa, Joan Gurutzekoaren laguna, eta Joana Chantalekoa, Frantzisko Saleskoaren laguna. Erraztiren adiskidearen arabera, gizonak ez ziren beti oroitzen emakumeez, eta harekin bat agertzen zen Errazti:

Eta zuzen dago. Gixonak eztira geyenetan emakumiakin gogoratzen eta eurek nagusi dirala uste-ixaten dabe. [...] Baña eztabe gomutetan Paul deunak berak bere idazkijan bertan gixonai esaten dautsena: «Emaztia damotzut eta ez jopuba: maite-egixu Josukristo'k bere Doibatza maite-ixan eban letxe» [Ef5.25].

⁴⁹ Mitxelenak (1984: 26) ere aipatzen du, esaterako, Aranak (1902) *La Patria* astekarian argitaratutako artikuluaaren edukia.

Aita Arriandiagak berak euskaratu omen zizkien Erraztiri eta senarrari ezkontzaren liturgian esan ohi diren azken berba horiek, Erraztik esaten duenez. Hitz horien harira, Jaungoikoak emakumeentzat ere egin zuela mundua gogoratzen du Erraztik —ez gizonentzat bakarrik—, eta, aurreko hainbat artikulutan zabaldutako ideia bat errepikatzen du: Aranek ere beharrezkotzat jotzen zuela emakumea aberriaren salbaziorako. Hala, aberriaren eta euskararen alde lan egiten jarraituko duela esanez amaitzen du artikulua Erraztik.

1953ko azaroko alean argitaratu zuten Emakume Batek sinatutako azken artikulua *Alderdi*, Erraztik aldizkariaren enkarguz idatzi omen zuena —«ALDERDI'kuak niri agindutako lana» dela aipatzen du bertan—. Artikulu horretan, gizonen ez ezik, Aranek emakumeen ere egin zela dei gogoratzen du Erraztik berriro, 1945etik aurrera argitaratutako zenbait lanetan errepikatu izan zuen bezala: «Orra orr, ba Sabiñen ustia: “Abertzaletasuna emakumiaren bijotzera elduko dan egunian bakarrik, garayaren ziur egongo gara”» (40. or.). Ondoren, EABren historiaren aurrekaririk eta gertakaririk azpimarragarrienak ekartzen ditu gogora: 1907an emakumeek idatzitako prentsa-artikuluak, «Ropero Vasco», «Asociación de Nuestra Señora de Begoña», 1922an Ambrosio Martin O'Dalyk Bilbon emandako hitzaldia, Bilboko Euzko-Gaztediko lehendakariak —Eli Gallastegik— emakumeen egindako deia, EABko lehen zuzendaritzak, Euskal Herri osotik zabaltzea, 1932ko Aberri Eguna, emakumeen hitzaldiak, 1935eko Gipuzkoako Bazpatza, Euzko-Gexozana, gerra, erbestea, Donibane Garaziko ikastola, La Roseraie... Bukaeran, hiru ideia azpimarratzen ditu Erraztik: lehenik, Aranaren irakaspenetatik sortu zela EAB; bigarrenik, Bilboko Euzko-Gaztedian jaio zela, eta, hirugarrenik, EAB «Euzko-Alderdi Jeltzaliarena beti ixan dala, ta orregatik jeltzalia dala ta ixango dala beti».

4.2.3. Euzko-Gogoa (1950-1951)

1950-1951 biurtekoan, hiru artikulua argitaratu zituen Erraztik *Euzko-Gogoa*: *Etxakin* ezizenarekin sinatu zuen lehenengoa, eta *Emakume batek* gisa azken biak.⁵⁰

Lehenengo artikulua —«Emakume oleskarijak»— euskal emakume olerkarien berri ematea zuen helburu, Zaitegiren aldizkariko testuetan genero-desoreka nabarmena zegoela sumatzen baitzuen Erraztik; honela azaltzen du ideia hori artikulua hasieran: «Neurtitz zarrak eta neurtitz barriak dirala-ta, gixonak diñardube; baña, jakiña, gixonak egiñak beti. Emakume oleskarijak ixan dirala ta bai-dirala ondiño be, ¿gixonak ete-dakije?» (14. or.). Hala, Sorne Unzueta *Utarsusen* «Itxartu, euzko-alabea!» eta Pantzeske Astibia *Onintzeren* «Euzko-

⁵⁰ Gandariasek (2021: 116) Erraztiren azken bi artikulua bakarrik aipatzen ditu bere lanean; Erraztiren bi testu horiek ez ezik, Sorne Unzueta eta Julene Azpeitiak *Euzko-Gogoa* idatzitakoak ere ditu aztergai.

Gaztedija» olerkien berri eman ez ezik, Erdi Aroko euskal eresigileen testuez ere aritzen da, besteak beste, Errazti. Jakina denez, EABko emakumeek ez zuten, oro har, genealogia femeninorik eratu, «ez baitzituzten emakume idazleen ekarpenak kontuan hartu, baizik eta gizonezkoen literatura tradizioaren jarraitzaile izan ziren» (Retolaza 2012: 114); nolana ere, 1950eko lehen artikulua horretan, euskal emakume olerkariak aldarrikatzeko eta horien genealogia moduko bat aurkezteko nahia erakutsi zuen Erraztik, Bordaren (1984) antologia baino aski lehenago.⁵¹

Bigarren artikuluan, Errazti pozik agertzen zen Zaitetik *Euzko-Gogoan* neologismoak erabiltzearen aldeko apustua egin zuelako —*Olerri, Elerri, Ereserri* edota *Antzerri* ziren, besteak beste, aldizkariaren atalen izenak—, neologismo horien ordeko «mordollozko itz zantar orrek» (*poesia, literatura, musikia, teatrua...*) baztertuta. 1951ko artikuluan, berriz, azken urtean hildako hainbat abertzale ekarri zituen gogora, bereziki «Ziaurritz'tar Dorota» —EBBko lehendakaria— eta «Arana-Goiri'tar Koldobika», eta ziurtzat jotzen zuen jeltzaleei «aldi zoruntsuak etorriko» zitzazkiela.

5. Ondorioak

1. Erraztik idatzitako testuen corpus osatuak orain arte aztertu gabeko testu batzuk jarri ditu mahai gainean; hain zuzen, 1945-1953 urteak bitartean argitaratutako hainbat artikulua eta erbestealdiaren hasiera- nahiz amaiera-aldean —zehazki, 1937an eta 1952an— idatzitako zenbait gutun pribatu. Testu horiek guztiak ezinbestekoak dira Erraztiren testugintza osotasunean aztertzeko eta balioesteko, bai eta Erraztiren biografia osatzeko ere, nahiz eta lan honetan ez dudan testu horien guztien azterketan sakondu.

2. Erraztik argitaratutako testuen azalpen laburrak nolabaiteko jarraitutasuna erakusten du hark landutako gaiak —erlijioa, aberria eta euskara— izan zituen hizpide Erraztik, bai gerraurrean, bai gerraostean. Horrez gain, emakumea erdigunean jartzeko ahalegin berezia egin zuen bere idazki gehienetan: Euskal Herriaz kanpoko emakume eredugarriak —historikoak nahiz mitikoak— goraipatu ez ezik, emakume abertzale askoren lana —ezagunena eta anonimoena— aldarrikatu zuen, ahanzturan gera ez zedin; emakume abertzaleentzako espazio bat eta iruditeria bat sortzen eta zabaltzen saiatu zen, eta emakumeen arteko ahizpatasun-sareak bultzatu zituen.

⁵¹ Historiografia femeninoan mugarriztat hartzen du Retolazak (2024: 300) Bordaren (1984) lan hori. Beste artikulua batean (San Juan Manso inprimategian), zabalago aritzen naiz «Emakume oleskarijak» artikuluan.

Orobat, Aranaren pentsamenduan eta hitzetan oinarritu zuen, bai emakume abertzaleen parte-hartze politikoaren zilegitasuna, bai EABren sorrera eta garapena.

3. Erraztiren testuetan plazaratutako ideiak —bai emakumearen inguruan, bai JEL leloari lotutako bestelako gaien gainean— bat datoz, neurri handi batean, beste emakume abertzale batzuen testuetan zabaldutakoekin; nolanahi ere, joera orokorren barruan, Erraztik berezko ideia- eta argudio-multzoa garatu zuen, orduko beste emakume batzuek egin zuten bezala (Goikoetxea 2022: 221). Erraztiren kasuan, nabarmentzekoa da, artikulugintzari dagokionez behintzat, emakume abertzaleen abangoardian egon zela, bai mende hasieran —*Euzko-Deyan* argitaratutako testu-sortarekin batez ere—, bai erdialdean —*Alderdin* edota *Euzko-Gogoan* argitaratutako artikuluekin—.

4. Urteetan zehar gai bertsuei helduta ere, nolabaiteko bilakaera antzematen da Erraztiren jarreran. Hasierako artikuluetan, herabe samar azaltzen da, eta emakumeei zuzentzen zaie, batez ere; gerraosteko testuetan, ordea, ahaldunduago agertzen da: itzulingururik gabe zuzentzen zaie gizonei, abertzaletasunak emakumeen parte-hartze politikoa ezinbesteko duela esateko, eta argi eta garbi salatzen du urteetan zehar —bai gerraurreko egituretan, bai Sabindiar-Batzan, esaterako— gizonek izandako jarrera baztertzailea.

5. Hala Erraztik landutako gaiei dagokienez nola haren jarreran antzemandako bilakaerari dagokionez, Erraztiren ekarpena ulertzen eta balioesten lagun dezake garaian garaiko testuingurua eta botere-harremanak aintzat hartzeak.

6. Bibliografia

- Agirreazkuenga, Joseba (arg.). 2010. *Barne-muinetako Sabin Arana Goiri. Gutunak I (1876-1903)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Arana, Vicente de. 1880. Los hijos de Amándarro. *Revista Euskara* 3. 87-92, 104-114, 138-144, 175-184, 204-211.
- Arana, Vicente de. 1882. *Los últimos iberos. Leyendas de Euskaria*. Madril: Librería de Fernando Fé.
- Arana-Goiri, Sabin. 1902. Euskal-zalekerija. *La Patria* 14. 1.
- Arriaga, Emiliano de. 1896. *Lexicón etimológico naturalista y popular del bilbaíno neto, compilado por un chimbo*. Bilbo: S. Amorrortu.
- Arrien, Gregorio & Iñaki Goiogana. 2002. *El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939*. Bartzelona & Bilbo: Fundació Ramon Trias Fargas & Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Astigarraga, Andoni de. 1989. Evacuaciones y exilios vascos. *Muga* 71. 30-37.
- Barandiaran Contreras, Miren. 2024. *Publicaciones periódicas del Partido Nacionalista Vasco (1939-1975)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.

- Belaustegi, Petra. [1909]. ¡Ametsa! In *Euskal-Esnalearen Esku-Egundiya 1910*, 20-22. Irun: Valverde'ren echea.
- Bilbao Bilbao, Begoña, Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Perez Urraza & Josu Chueca Intxusta (arg.). 2012. *Emakumeak, hitza eta bizitza*. Bilbo: UPV/EHU.
- Borda, Itxaro. 1984. *Emakumeak idazle. Antologia eta ohar zenbait*. Donostia: Txertoa.
- Camino, Iñigo & Luis de Guezala. 1991. *Juventud y nacionalismo vasco. Bilbao (1901-1937)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Colombo. 1936. Breve historia de la villa vizcaína de Otxandiano. *Vida Vasca* 13. 203-205.
- Crespo, Cira. 2022. *Tene Mujika udazkeneko argitan*. Deba: Debako Udala.
- Delmás, Juan Eustaquio. 1904. Los hijos de Amandarro. *Euskal-erria. Revista bascongada* 51. 155-158.
- Etxaniz, Xabier & Karla Fernández de Gamboa Vázquez. 2020. Literatura infantil y juvenil vasca, elemento clave en la recuperación de la lengua. *Caderno de letras* 38. 353-371. <https://doi.org/10.15210/cdl.v0i38.19847>.
- Etxebarria Zamalloa, Igone. 2000. Escritoras vascas en el primer tercio del s. XX. In Iris M. Zavala (koord.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, 6. lib., 385-398. Barcelona: Anthropos.
- Ezkurdia, Gurutze, Begoña Bilbao & Karmele Perez. 2017. Emakume Abertzale Batza Bilbon. *Euskalingua* 31. 14-27. <http://mendebalde.eus/euskalinguak/Euskalingua%2031/el31-02.pdf>.
- Ezkurdia Arteaga, Gurutze, Karmele Perez Urraza & Begoña Bilbao Bilbao. 2024. Miren Josune Ibaseta Mendizabal maistrak, sendia oinarrian, emakumeen prestakuntza, euskara eta aberria ardatz. In Luis M. Naya Garmendia (koord.), *Paulí Dávila. Euskal Herriko hezkuntzaren historiaren bidezidorretan argi*, 79-117. Madrid: Delta.
- Fernández Fernández, Idoia. 2012. Género, educación activa, lengua y nación en el País Vasco. Julene Azpeitia (1888-1980), exponente de una educación vasca en ciernes. *Historia de la educación* 31. 275-297.
- Gandarias Beldarrain, Ziortza. 2021. Basque women in exile: Remembering their voices and impact in literature through the cultural magazine *Euzko-Gogoa*. In Larraitx Ariznabarreta & Nere Lete (arg.), *Memory and emotion. Basque women's stories. Constructing meaning from memory*, 107-128. Reno: University of Nevada, Center for Basque Studies.
- Gauzekitz, Jon. 1914. *Margarite'ren ames ixukorra*. Bilbo: Grijelmo'ren Alarrgun-Semien Irarrkolea.
- Goikoetxea Agirre, Nekane. 2022. *Tene Mujika emakumea. Pizkundetik ahanzturara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Hégo, Jean-Baptiste. 1896. *Légendes de la vie réelle*. Paris & Lille: J. Lefort & A. Taffin.
- Jemein, Keperin. 1935. *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e Historia gráfica del nacionalismo vasco*. Bilbo: Editorial Vasca.
- Jemein, Keperin. 1945. *La visión pensativa y atormentada de Arana-Goiri*. Baiona: Sud-Ouest.

- Jemein, Keperin. 1952. Laburrkiro. *Euzko-Gogoa* 3(3/4). 25.
- [Jemein, Keperin] Belandia. 1956b. Euzkeltzale-Bazkuna. *Euzko-Gogoa* 7(9/10). 41-45.
- Jemein, Keperin. 1986. *El Nacionalismo vasco y la sublevación militar en Euzkadi. 18 de julio de 1936*. Bilbo: Alderdi.
- Jemein, Keperin. 1987. *El primer Gobierno Vasco*. Bilbo: Alderdi.
- Jemein, Keperin. 1988. *Euzkadi en guerra (1936-1937)*. Bilbo: Alderdi.
- Jiménez de Aberásturi, Juan Carlos. 1999. *De la derrota a la esperanza. Políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947)*. Oñati: Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea.
- Larrañaga, Policarpo de. 1978. *Emakume Abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco*, 1.-3. lib. Donostia: Auñamendi.
- López Antón, José J. 1998. El imaginario pesimista de Vasconia en Arturo Campión. *Vasconia* 27. 177-194.
- Lorenzo Espinosa, José María. 1992. *Gudari. Una pasión útil. Vida y obra de Eli Gallastegui (1892-1974)*. Tafalla: Txalaparta.
- Mitxelena, Koldo. 1984. Los vascos y su nombre. *RIEV* 29(1). 9-30. (Berrargit. OC 8, 285-309).
- [Mujika, R.] Tene. 1923. *Miren Itziarr'i idazkiak eta olerkiak*. Zornotza: Jaungoiko-Zale'ren irarkola.
- Otaegi Imaz, Lourdes. 2000. Lizardi y las mujeres. Desde la conjura femenina a la gran guerra pacífica. In Iris M. Zavala (koord.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, 6. lib., 284-311. Barcelona: Anthropos.
- Perez Urraza, Karmele, Begoña Bilbao Bilbao & Gurutze Ezkurdia Arteaga. 2022. *Emakumeak aberria eginez*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Rekalde, Itziar. 2012. Emakume Abertzale Batza. Bere ibilbidea aztergai. In Begoña Bilbao Bilbao, Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Perez Urraza & Josu Chueca Intxusta (arg.), *Emakumeak, hitza eta bizitza*, 21-42. Bilbo: UPV/EHU.
- Retolaza, Iratxe. 2012. Emakume Abertzale Batza eta emakume idazleak. In Begoña Bilbao Bilbao, Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Perez Urraza & Josu Chueca Intxusta (arg.), *Emakumeak, hitza eta bizitza*, 102-119. Bilbo: UPV/EHU.
- Retolaza, Iratxe. 2024. Hitzostea. Katebegi literario klasikoen arrasto feministen peskizan. In Amaia Alvarez Uria, Zuzi iraxegia. *Euskal emakume idazleak eta literatura klasikoa*, 297-305. Bilbo: Testu Zaharrek.
- San Juan Manso, Enara. 2025. Karmele Erraztiren bost gutun argitaragabe (1937ko abuztua-iraila). *ASJU* 59(2). <https://doi.org/10.1387/asju.27564>.
- San Juan Manso, Enara. Inprimategian. Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko. *FLV*.
- Sánchez-Pinilla, Francisca. 2012. Análisis de la narrativa infantil escrita por mujeres (1920-1939). *Ocnos* 8. 57-66. https://doi.org/10.18239/ocnos_2012.08.05.

- Sarriugarte, Iñaki (arg.). 2023. *Jule Gabilondo. Jel-azia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Serrano-Mariezkurrena, Amaia. 2024. *Begirada literarioak iraganari. 36ko Gerraren irudikapenak euskal eleberrigintzan*. Bilbo: UPV/EHU.
- Ugalde Solano, Mercedes. 1991. Emakume Abertzale Batza. *Emakunde* 6. 58-63.
- Ugalde Solano, Mercedes. 1993. *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Uruburu Torotikaguena, Laura. 1997. *Emakume Abertzale Batza (1922-1936)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Zuberogoitia, Aitor & Pedro Zuberogoitia. 2008. *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*. Bilbo: Bilboko Udala.
- Zubikarai, Augustin. 1991. *Euskal antzerkia Bizkaian*. Donostia: Antzerti.